

XXI. MENDEKO EUSKAL NORTASUNA

1. NOR GAREN

1.1. BIZITZA ULERTZEKO MODU BAT: HORRELA IKUSTEN DUGU GURE BURUA

5. Garrantzia handia ematen diegu familiari, justizia sozialari, koadrilari, ondo jateari. Tratuan ez gara oso formalistak. Kirolzale amorratuak bai, ordea: 8 milak Himalaian, txirrindularitza, arrauna, mendiko maratoiak. Kirol probak jai bihurtu ohi ditugu -Tourreko Pirinioetako etapa, Zegama-Aizkorri edo Behobia San Sebastian- eta festa, ordea, arrisku-kirol -San Fermin jaietako entzierroak.
6. Gizon eta emakumeen arteko harremanetan berdintasunaren aldekoak garela ere esaten dugu. Ingurumena edo lurra zein itsasoa zaindu eta babestu beharra aldarrikatzen dugu. Partekatzen dugunarekin konprometituak. Desberdinarekiko enpatikoak gara eta aniztasuna errespetatzen dugu beren adierazpen desberdinetan...
7. Ziur esaten dugun horretan guztian egia dagoela, gure baieztapen batzuk ere objektibagarriak izan daitezke, **baina ikuspegi autokonplazientea da, ederregia egia absolutua izateko**. Askotan, izan beharra izatearekin nahasten dugu. Harrotasuna eta nagusitasun zentzu faltsua nahasten ditugu. Herri gutxituen portaera arketipikoa da.
8. **Oso gauza bestelakoa da gurearekiko harrotasuna sentitzea**, nork bere mugak onartzen jakitea, eta komunitate gisa norberaren ahaleginaren bidez guztiok aurrera egiteko deia egitea. Kennedyk egin ohi zuen galderari erantzutea da: galdetu zeure buruari zer egin dezakezun zure herrialdearen alde.
9. **Ez da osasuntsua etengabe gure auzokoak baino hobekak garela pentsatzea**. Auto-engainu pixka bat ere badago horretan; izan ere, gure bizilagunek, batzuetan, emaitza orokorrak lortzen dituzte, ez gureak baino askoz ere txikiagoak, eta ez handiagoak. Urrunago begiratzen hasi behar

dugu, gorago ere bai. Europako lehen mailarekin alderatzeko eta emulatzeko erreferenteak bilatu behar dira, Erdialdeko Europan, Frantzia, Eskandinavian. Ariketa horrek errealitate-printzipio batean oinarritzea ekarriko luke, eta gure herriari ekintza-programa bat ematea, gure buruaz, izan nahi dugun horretaz, dugun ikuspegiarekin bat etor dadin.

10. Ezinbesteko gertatzen zaigun apaltasun horrekin batera, euskal gizartearen nortasun-ezaugarri ikusgarrietako bat alde batera uztea egia huts egitea bezala litzateke, komunarekin konprometitu egotearekin zerikusia duen zerbait. **Euskaldunok gizarte zibil gisa geure burua antolatzeko dugun gaitasunaz ari gara**. Ezaugarri identitario horren azpian lankidetzaren eta ekintzailetzaren balio batzuk daude, gure gizartean dauden elkarte-modu ugarietan eta aniztatan agertzen direnak.

1.2 IZATEKO ERA BAT: HORRELAKOAK GARA

Euskaldunon kooperazio eta ekintzailetza

11. Belaunaldiz belaunaldi euskaldunak bultzatu dituen lankidetzaren eta ekintzailetzaren-espirtua hobeto ulertzeko, **maiorazkoari begiratu behar zaio**. Sistema horrek lehen semearengan uzten du familia-ondasunak elkartuta mantentzeko erantzukizuna. Gainerako anai-arrebek familiaren etxetik alde egin behar izaten dute, etorkizun berrien bila. Sistema gupidagabe horrek katalizatzaile gisa balio izan zuen lankidetzaren-izpiritu eta negoziatio-pragmatismoa azaleratzeko, eta horiek gabe ezin izan zuten aurrera egin hemen edo mundu osoan bizia bilatu behar izan zutenen zati handi batek. Espiritu hori XIII. mendeko itsas ekimenean oinarrian dago, hala nola Paduretako Ermandadea, Liga Handiatuaren erreplika bat, Frantzia eta Flandriarekin merkataritzan ziharduena; edo Caracasko

Konpainia Gipuzkoarrari, zeinak XVIII. mendean, 50 urte baino gehiagotan, Venezuelatik mota guztietako ondasunak inportatzeko eta merkaturatzeko eskusiba izan baitzuen, kakaoa besteak beste.

12. Gaur egun, euskal herritarren berezko ekintzailletza hori gure industriaren buru diren **enpresaburuegan** agertzen da, sektore dinamiko, berritzaile eta lehiakorra baita. Herrialdean oso errotuta dagoen enpresaburu mota bat da. ETArek urterik txarrenean ere ez zuen bere erantzukizuna bertan behera utzi eta ez dio bere onurari soilik begiratu; aitzitik, enpresan berrinbertitzen jarraitu du, eta enpresa ulertzen du gizartearentzako aberastasun-iturri gisa.
13. Halaber, ekintzailletza hori **kooperatiben mugimenduan** ere agertzen da. Mugimendu horrek 1956an sortu zuen bere lehen enpresa, lankidetzeta eta partaidetzeta sozialaren filosofiarekin. Gaur egun, 2.600 kooperatiba baino gehiago ditu, 400 industrial baino gehiago, baita unibertsitateko eta ikerketako prestakuntza-ingurune bat, gizartea eraldatzeko konpromisoarekin
14. Eta herritarrek hainbat eta hainbat gizarte-harreman sortzeko erakutsi duten gaitasunean ere islatu da. Lan horren ondorioz egin dira hezkuntza-, kultura- eta gizarte-konpromisoko hainbat proiektu. Horien artean azpimarratzekoak dira **ikastolen mugimendua**, euskarazko hezkuntzaren alde egindako lanagatik, zazpi herrialdeetan sartzeagatik, eta urtero dirua biltzeko egiten diren 5 jailetarako deialdiek izandako arrakastagatik. Alderdi ludikoago batean, erreferentziala da **elkarte gastronomikoen sarea**, bai eta euskal gizarteak duen **komunitate-kapital sozial nabarmena** ekarri duten kirol-, gizarte-, kultura- eta jai-elkarte ugariena ere. Gizarte honen bultzada ekintzaille eta solidarioaren eta lankidetzeta horren adibide hunkigarri bat, 21. mendean, **Zaporeak proiektuan** islatzen da. Espiritu erabat pragmatiko batean oinarrituta, Zaporeak taldeko kideek Kennedyk egiten ohi zuen galdera erabakigarria planteatu zuten. *Zer egin dezaket nik* goseari edo gerrari ihes eginez itsaso, basamortu eta mendiak zeharkatu ondoren Lesbosko desolazio harresia besterik aurkitu ez duten gizon eta emakume horien alde? Bada, euskaldunoi gehien gustatzen zaiguna: jaten ematea. Bi urtetan milioi bat janari anoa baino gehiago banatu ditu Zaporeak taldeak Greziako

errefuxiatu-guneetan, denbora, dirua eta lana eman dituzten 500 boluntario ingururen bitartez.

Hizkuntza bat, Kultura bat eta erakunde bereziak *Euskara*

15. **“Paradoxan erori gabe, esan daiteke euskaldunak, argi eta garbi bereizitako giza taldea den aldetik, hizkuntza (euskara) izate ukigarriari esker baino ez direla existitzen”** (K. Mitxelena).
16. **20. mendea mugarri izan da euskararen historian**. Iragarpen guztien aurka, eta milurteko luzean etengabe atzera egin ondoren, euskarak susperraldi harrigarria hasi zuen XX. mendearen erdialdean, gaur egunera arte iraun duena. Faktore askok iraultetaren aldeko indarrak batu dituzte. Baina abentura hori ezinezkoa zatekeen ahalagin horrekin konprometitutako herritarrek eginitako bultzadarik gabe, prozesu hori ahalbidetu eta garatuko zuten erakunde propioek emandako bultzadarik gabe eta *euskara batuaren* batasunaren lorpenik gabe.
17. **Berreskuratze-abiadura ez da berdina izan lurralde guztietan**. Hizkuntza ezagutzen dutenen proportzioa Nafarroan %50 baino gehiago igo den bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoan eman da jauzirik handiena, 80ko hamarkadatik hona bikoiztu egin baita hizkuntza ezagutzen dutenen kopurua. Ipar Euskal Herrian ez da horrela gertatu, non euskarak, hizkuntza ofizialaren estatusik eta babes politikarik gabe, ez baitu susperraldi zantzurik erakutsi XXI. mendea ondo sartu arte.
18. Prozesu honen **motibazio-eragile nagusia kide izatearen sentimenduari lotuta** egon da, hau da, hizkuntza berezkozat sentitzeari, euskal nortasuna hobekien definitzen duen ezaugarri gisa. Izan ere, euskaldunok geure burua herri gisa definitzeko dugun modua ez dago lurralde, jatorri edo paisaia bati lotuta. Ez dugu esaten *izotz-lurraldekoak* garela, islandiarrek egiten duten bezala; edo *basamortukoak*, arabiarrek egiten duten bezala; edo *lautadetakoak*, poloniarrek egiten duten bezala. *Euskaldunak* garela esaten dugu, hau da, *euskaraz hitz egiten dutenak*.
19. **Bigarren motore bultzagile nagusia izan da enplegua bilatzea edo finkatzea** eta gizartean gora egiteko interesa. Ondorengo esaldian laburbil genezake: Euskara ez naiz ikasten ari aberriaren alde egiteko, lanpostua baino ez dut nahi. Arrazoi biak dira guztiz zilegi.

20. **Gaur egun euskara ezagutzen dutenen erdiek ez dute ama-hizkuntza gisa jaso.** Helduaroan ikasteko urratsa eman zuten gizon eta emakumeak dira, edo D ereduan ikasketak egin dituzten gazteen kolektibo handikoak, gurasoek hala erabaki zutelako. Gazte eta heldu guztien ahaleginak merezi du gizartearen onespina eta euskal komunitate osoaren errespetua.
21. Ezagutza eta motibazioa ezinbesteko faktore dira hizkuntza batek aurrera egin dezan, Joshua Fishman Euskaltzaindiko ohorezko kide eta filologoak adierazi bezala. Baina biak bakarrik ez dira nahikoak. Fishmanek esan zuen **zikloa ixteko hirugarren faktore bat behar zela, hau da, hizkuntza horretan komunikatzea ahalbidetuko duen ingurune baten beharra dagoela.** Bestela esanda, hiztunak izan behar du hizkuntza horretan norekin hitz egin, zer irakurri, zer ikusi edo zer entzun eta euskararen kasuan hori ez da beti erraza izaten. Arazo nagusia da euskal komunitatea ez dela ez trinkoa ez homogeneoa ikuspegi geografikotik. Bilbon Markinan baino askoz euskaldun gehiago dago, baina sakabanatuta daude. Markinan errazagoa da euskaraz komunikatzea Bilbon baino.
22. Euskara berreskuratzeko prozesuaren gauzarik aipagarriena da **komunikatzeko baldintza txarrenetan ere, euskaldunberri helduek oztopoak gainditzeko moduak bilatu dituztela** eta Mintzalagun taldeetan integratu dira, aisia eta bizipenak partekatuz; edo lan inguruan euskaraz komunikatzeko. Une honetan ia 1.000 mintzalagun talde daude Euskal Herri osoan eta aldi-aldi 7.000 mobilizatzen dituzte.
23. Hala eta guztiz ere, **motibazioen esparrua erabat aldatzen da Euskara eskolan ikasi duten gazteei dagokienez.** Haienentzat, Euskara lotuta dago, ia eskusiboki, jarduera akademikoarekin eta ikasketekin. Irabazi duten ezagutzak ahalbidetzen die esparru formalean aritzea. Baina mugatuta sentitzen dira, erraztasunik gabe, testuinguru informal edo ez formalean aritzeko. Modismoak falta dituzte, esaerak, lagunen arteko edozein elkarrekin ematen diren hizkera propioa. Hizkuntzek emozioak adierazteko eskaintzen dituzten kodigoak falta dituzte, aldi berean pertsonaren eta hizkuntzaren arteko lotura bilbatzen dutenak.
24. Esandako horri guztiari, **beste faktore** bat gehitu behar zaio motibazioen alderditik askoz

erabakigarriagoa dena, eta hori da **hizkuntza ikastea ez zela norberak eginiko aukera, gurasoena baizik.** Guraso horiek erronka gisa bizi zuten, konpromiso pertsonal gisa, beren indarrak batzea ikastolak sortzeko eta euskararen bizirau-penaren aldeko borrokari ekitea. Beren seme-alabek, zorionez, euskara ezagutu dute *hizkuntza ofizial* gisa. Gazte hauentzat, ezagutzen eta praktikatzeko dituzten hizkuntzetako bat da. Ondorioz, ezaugarri duten espiritu pragmatikotik, egoera komunikatibo bakoitza neurtzeko joera izan ohi dute, eta beren helburua lortzeko ondoen datorrien hizkuntza aukeratu ohi dute.

25. Faktore horiek guztiak kokatzen baditugu **komunikazio digitalen agerpenak bide naturalen bidezko kultur transmisioa higitu duen une historiko batean, esan daiteke etapa berri batean gaudela.** Fase berri horretan, euskararen ezagutza sustatzen duten eta eskolan eskuratutako hizkuntza maila handitzen duten mekanismoei jarraipena emateaz gain, erabilera erraztuko duten gizarte- eta motibazio-inguruneak sortzeko estrategiak beharko dira.
26. Beraz, **kultura ez-hegemonikoak transmititzeko gero eta zailtasun gehiago dituen eszena-toki batean sartu gara.** Agian horregatik, bereziki nabarmentzen da tradizio sekularreko euskal kultur adierazpen bat, bertsolaritza, zirkunstantzia horietan garatzea, euskal gazteriaren zati handi bat erakartzeko eta bultzatzeko indarrari utsiz. Bereziki, hitzeko artea izanik, "Hizkuntza ez da gorputza janzen duena. Gorputza DA" (Ruqaiya Hasan) (1985/1989-91)

Euskal Kultura, artea eta nortasuna

27. **Euskal kulturaren** balio aipagarrienetako bat **ahozkotasuna** da, eta atal honen barruan, **XXI. mendeko bertsolaritza** balio handiko altxor gisa agertzen zaigu. Bertsolariek publiko heterogeneoa biltzen dute, eta bere praktika Euskal Herriko herrialde guztietan hedaturik dago. Ekarpene handia egin du euskal hizkuntzaren inguruan elkarrekin bizitzeko, dibertsio handia eskaintzen du, eta ideologia eta izaera guztietako pertsonak biltzen dituen audientzia heterogeneoa erakartzen du, hala nola hiru belaunaldiak dituzten familiak, feministak, ekologistak, pentsiodunak, preso ohiak, kirolariak eta alderdi ezberdinetako hautesleak. Bertsolaritzak, era berean, milaka jarraitzaile integratzen eta parte

hartzen jakin du modu aktiboan, bere inguruan komunitate bat sortuz.

28. Giro plural eta gazte horretara egokitzen jakin izan du bertsolariak, doinu berrituekin eta gero eta gai askotarikoagoak erabiliz. **Bertsoa, hizkuntza biziaren barruan, euskararen biziraupena azaltzen duten faktore dinamizatzaileetako bat da.**
29. Bertsolaritzaz gain, badira Ipar Euskal Herrian gorde diren ahozko literaturaren beste bi adierazpen artistiko ere. **Pastoralez eta Maskaradez** ari gara. Adierazpen biek, hitza, musika eta dantza uztartzen dituzte.
30. Ahozko **literaturaren** eta idatzizkoaren arteko zubia Bernat Etxeparengan dugu, euskarazko lehen idazle, poeta herrikoi eta bertsolariarengan. Jesus Maria Leizaola jaunak ondorengo hau idatzi zuen: *"Etxeparek bere bertsoak egin nahi izan ditu euskal poesian gutxienez bi mende lehenagotik ohikoak ziren metro eta ahapaldi berberetan"*.
31. **Etxeparek Linguae Vasconum Primitiae** izenburupean argitaratu zuen bere liburua 1545ean, eta ia une horretatik XIX. mendera arte euskal **literaturaren ezaugarri nagusiak izango dira bere izaera pragmatikoa eta gai erlijiosoen hartzen duten garrantzia.**XIX. mendean,ordea, prosa narratiboaren sorrera izango da nagusi. XX. mendetik aurrera, gerra aurreko literatur berpizkundera, erbesteko eta gerraosteko literatura agertuko dira, eta 60ko hamarkadan, euskararen batasunaren eskutik, gaur egunera arte iritsi den letren loraldia gertatuko da.
32. Atxaga, Aresti, Saizarbitoria, Landa, Lertxundi, Urretabizkaia, Sarrionandia, Txillardegia, Borda eta Uribe dira erreferente nagusiak. Euskarazko literatura da euskal literaturaren baitan sortu den potentzia sortzaile interesgarrietako bat, generoen espektro osoa lantzen baitu, saiakeratik hasi eta haurrentzako ipuinetaraino, eta hori guztia oso ikuspegi gaurkotu, berritzaile eta kalitatezko egiten du, gainera. Literatur lanek egungo euskal komunitatearen unibertso sinbolikoa elikatzen dute, errealtatearen irakurketa kritikoa eskainiz, bere kezka existentzialei aurre eginez, emozioen itsasoan murgilduz edo leihoak beste mundu posible batzuetara irekiz. **Idazleen artean, ordea, bada kezka bat, bai literatur kritikariak eta bai irakurleak oraindik ere euskaraz idatzitako lanetan hizkuntza menderatzearen balioa**
- bilatzen dutelako literaturarenaren ginetik. Kezkatuta daude, halaber, euskarazko literaturaren ikusgarritasun eskasagatik,merkatua berez nahiko basatia delako eta kultura hegemonikoek duten indarra ikusirik.**
33. Balioak transmititzeko mekanismo gisa indar handia duten **hitzezko arteek** ere atal propioa mereziko lukete. Antzerkiaz, zinemaz eta, oro har, euskarazko fikzio eta entretenimenduko ikus-entzunezko ekoizpenaz ari gara. Diziiplina horietan, sortzaileak eta publikoak kode bera (eus-kara) erabiltzen dute, lotura berezia sortuz.
34. Baina gizartean izan duen eragina kontuan hartuta, euskarazko **musikak** azken 50 urteotan egin duen bideari erreparatzea merezi du. Batez ere, bila-kaera hori izan delako herrialde honetan gertatu den eraldaketa soziokulturalaren isla. *Euskal kantagintza Berria* deituriko euskal musikaren panoramaren berritzea proiektu kolektibo batekin hasi zen. 60ko hamarkadaren amaieran, *Ez Dok Amairu* taldeak plaza publikora salto egin zuen ikuskizun berritzaile bat eskainiz, musika tradizionalari eta sorkuntza propioei lekua eginez. Garaiko joera handiak jarraitzen zituzten (Dylan, Yupanqui edo chansonnier frantsesak). Beren konposizioen letrak garaiko euskal komunitatearen, pentsamenduen eta asmoen adierazpen liriko bihurtu ziren
35. 70.eko hamarkadako kontzertuetan islatutako itxaropen eta amets horiei 80ko hamarkadako punk-aren zaplaztekoak jarraituko ziren, **Euskal Rock Erradikalaren sorrerarekin**, amorruren eta desengainuaren adierazgarri nagusi gisa, krisi industrial larria eta langabezia handia pairatzen ari zen gizarte batek sortutakoak. **90eko hamarkadan, ekonomikoki eta sozialki lasaiagoak, soinu-txikia eta pop taldeak musika-ekoizpen dibertsifikatu baten aitzindari bihurtuko ziren, eta eskaintza etengabe handituko zen.**
36. XXI. mendearen etorrerarekin, *nazioarteko artisten presentzia lehenesten duten jaialdi eta makro-jaialdien ildoak ireki zen. Musika mota guztiak ikusgarri egiten dituzten eta musikaren kontsumoa turismoaren logikaren barruan kokatzen duten ereduak sustatzea da helburua (...)*. Gaur egun, euskal musikak osasun ona bizi du, baina ez nostalgia apur bat gabe. Sentimendu kolektibo batekin lotuko gaituen eta hirurogei, laurogei edo laurogeita hamarreko hamarkadan bezala

lurra astintzea lortuko duen mugimendu musikal sendoren baten umezurtzak izanik, **gaur egungo eszenak erosotasuna eta kanpoko eragin estetiko handia ditu oinarri, eta horrek baldintzatu egiten du musika-ekoizpenaren eta -erakustaldiaren esparruan ematen den urrats bakoitza. Sareko kontsumoak bultzatutako azelerazioak zaildu egiten du identifikatzea eta kontsumo iragankorra indartzea. Inoiz baino musika gehiago kontsumitzen da, eta horrek eragin txikiagoa du gizarte**an (Xabier Erkizia)

37. Laburbilduz, **musika-ekoizpen indartsua dugu, baina norabide estrategiko mugatua**. Ikusgarritasun arazoak dituen musika dugu, eta literaturak baino joera handiagoa du balio linguistikoa indartzeko. Baina badugu bertsolaritza bat ere, dagokion eginkizuna ondo egin duena eta XXI. mendean erakargarria izaten jarraitzen duena. Horri dagokionez, Jon Sarasua informazio zientzietan doktore eta bertsolariak dio *azken 25 urteetan bertsolaritzak estrategia kontziente eta pentsatua jarraitu duela, ekosistema bat sortzea (...)* Bertsolaritzaren mundua antolatzeke orduan hiru norabide izan ditugu: 1) Belaunaldien arteko transmisioa antolatzea 2) Sustapena antolatzea 3) Ezagutza antolatzea.
38. Bertsolaritzaren estrategia inspiratu duen ideia nagusia, hau da, prozesuan parte hartzen duten alderdi guztietan jardunez **ekosistema kultural** bat sortzearena, ideia desiragarria da euskal komunitateari eusten dioten eta indarra ematen dioten diziplina artistikoak biziberritzeko.
39. Baina, hitzezko arteez gain, bada beste arte-mota bat ere, hitzik behar ez duena, hizkuntza-oztopoak gaindituz unibertsalki komunikatzeko gaitasuna duena. Mendeetan zehar, artista askok hitzez egiten ez diren arteak baliatu dituzte beren sormen-emia adierazteko eta identitate-gaiak aztertzeko. **Margolariak, eskultoreak, argazkilariek eta dantza arloko artistek auzitan jarri dituzte gizarte**an dauden estereotipoak eta konbentzioak, eta, aldi berean, generoa, sexualitatea, arraza, nazionalitatea edo kultura-ondarea bezalako ezaugarriak aztertzen zituzten, beren lanaren bidez nortasun pertsonala eta nortasun soziala zehazten dituzten ezaugarriak aztertzen joateko.
40. **Arteari** eta nortasunari dagokienez, gizarte-erakuntza oro bezala, nortasuna ez da berez agertzen, baizik eta komunitate bateko kideek egiten dute, beren kulturaren eta gizarte- eta denbora-testuinguru jakin batean oinarrituta. Beraz, **identitatea kulturaren ondorio da. Baina, aldi berean, identitaterik gabe ez dago kulturarik, hori existitzeko ezinbesteko baldintza baita**, gizabanakoek bizitzan zehar barneratzen dituzten kultur irudikapen, arau, balio, sinesmen eta sinboloetatik abiatuta. Identitateak kultura sortzen du kulturak identitatea eraldatzen eta berregiten duen bezainbeste.
41. **Komunitate bat identifikatzen dutenak dira kide bakoitzak bere pertzepzio subjektiboaren bidez hautatzen dituen ezaugarri kultural objektiboak; horregatik, ez da nahikoa talde jakin bateko kide izatea harekin identifikatzeko.**
42. Joan den mendeko 60ko hamarkadan, Jorge Oteizak, Quosque Tandem izenburuarekin argitaratu zuen liburuan, euskal arimaren interpretazio estetiko bat planteatu zuen, hau da, euskaldunen artean espirituala denaren interpretazio bat, historiaurrera arte atzeratuz eta garai eta lurralde guztietako euskaldun guztiei izpiritualtasun komun bat dagoela ziurtzat emanez. Oteizak artista gisa izan zuen jarrera pertsonalak gazte belaunaldi bat markatu zuen 80ko hamarkadatik aurrera, komunikabideek, kritikariek eta korrante ideologikoen "Euskal eskultura berria" deitu zutenean elkartuta. **Eta ideia hau jaso dugu: Euskal artea ezaugarri definitzaile eta desberdin batzuetan oinarritzen da, beste nazionalitate batzuetako arte-adierazpenekin alderatuta.**
43. **Euskal gizarte**a bezalako gizarte moderno batean, artearen eta haren ezaugarrien sozializazioa izaera kognitibo arrazionalakoa da **emozionala baino gehiago**, eta, beraz, interpretazioak, balioak, sinesmenak, portaerak transmititzeko mekanismoak... ez dira iraganeko berberak. Baina sortzaile eta hartzaile asko ditugu, herri honen esentzia den tradizioarekin identifikatu nahi dutenak. Igaro beharreko trantsizioa da, hau da, elkarbizitza eta gure iraganeko kulturaren elementu tradizionalak gaur egunera eramatea, arrakalarik gabe.
44. **Artista/sortzaile garaiakidea** arima aske gisa ulertu behar dugu bere adierazpenean, bere herrialdeagatik, ideologiagatik edo beste inguruabar batzuen arabera toki batean edo bestean lerrotatu gabe. Baina, hala ere, "identitate

baten” adierazle gorenena da, bere hizkuntzaren bidez bizi den gizartearen errealitatea adierazten baitu: gurea. Komunitate bat zer den eta nolakoa den islatzen du: haren ezaugarriak, berezitasunak eta transmisio-bideak. **Eskaintza kulturala zenbat eta aberatsagoa izan, orduan eta antzekoagoa da kontsumitzailea bere komunitatearekin, eta komunitate horren sentimendua eta taupadak diren esentziaren sinbiosi eta transmisio handiagoa dago.**

45. Adierazpen artistiko batzuk egokiagoak izan daitezke kolektibitatean gozatzeko: bertsoarritza edo musika, adibidez. **Beraz, adierazpenak batzeko ahalegina egin behar dugu. Alderdi emozionala eta arrazionala bateratzeko.** Tokikoaren espezifikotasuna orokorrean integratzeko. Eta maila horretan dagoen aldea edo espezifikotasuna baliatzen jakin behar dugu.
46. Gaur egun, gakoa ez da artearen definizioa edo izena, **baizik eta elkarrekintza komunikatiboa –Komunikazio-prozesuetan parte hartzea–, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren gizabanakoei (bertan jaio zein ez) aukera ematen diena identitate-adostasunen bat sortzeko gaitasuna duen `n´ kolektibo batean integratzen joateko.**

Demokrazia, Eusko Legebiltzarra

47. XIX. mendeko Bizkaiko azken diputatu nagusi Fidel de Sagarmínagak, 1880an kargutik kendu ondoren, *“Euskal Herriaren historia konstituzionala”* egiten saiatu zen, eta termino horietan ulertu eta azaldu behar dugu. 1765ean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako elite ilustratuak, gobernu bere ardurapean zuenak, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte eratu zuen, eta bere estatutuen 1. artikulua honako hau ezartzen zuen: *“Elkarte honen helburua da Euskal Herriak zientzietara, letra edereetara eta arteetara duen joera eta gustua lantzea, haren ohiturak zuzentzea eta leuntzea; aisialdia, ezjakintasuna eta ondorio kaltegarriak baztertzea, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko harremanak are gehiago estutzea”*. Hasierako proiektuen artean, “Gipuzkoa, Araba eta Arabako hiru probintzien historia nazionala” egitea zegoen.
48. 1793ko urriaren 30ean, Espainiako monarkiari Frantziako Errepublikari deklaratu zion gerra baten testuinguruan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako komisionatuak Bilbon bildu ziren foruak babesteko

eta *“Euskal Herriko Konstituzioa hobetzeko eta iraunarazi nahi duten Ermandadea sendotzeko”*. 1850ean Gernikan Bizkaiko Batzar Nagusietan batzartu ziren Arabako eta Gipuzkoako komisionatuek “Euskal naziotasuna” aldarrikatu zuten “Foru Konstituzioa” defendatzeko, eta 1852an Blas López eta Pedro Egaña Arabako komisionatuek “Konstituzio baskongadoaren” printzipio juridiko eta politikoak definitu zituzten, eta horien artean, foru-baimena eskatu zuten: *“Inbasio bidegabe ororen aurka aurreko eskubideak defendatzeko eta salbatzeko, euskal Konstituzioak baliabide eraginkorra du. Jatorrizko independentzia: FORU-BAIMENA, zeinarik gabe, azken urteetara arte hitzez-hitz errespetatua izan dena, ezin baita bertan inolako xedapenik gauzatu eta bete, botere zentralak nahi duen, hartu duen eta zirkulatzen duen motakoa izanda ere. (...) FORU BAIMENIK gabe, autonomia baskongadoa, denek errespetatu nahi dutela diotena, formula hutsala da, eta haren apetaren mende dago”*.

49. XIX. mendean zehar, Batzar Nagusiek beren Aldundien edo gobernuen botere publikoa indartu zuten, euren ahalmenak eta eskumenen kudeaketa finkatzen zituzten bitartean, politika interbentzionista eginez. Lege-esparrua Espainiako Konstituzio liberalek finkatzen zuten, eta 1839ko urriaren 25eko Legeaz geroztik, gobernu zentralak alde bakarreko erreforma batzuk egin zituen foru-sisteman, baina bi aldeek adostutako “foru-konponketa” egiteke zegoen. Gobernu liberalekin liskarrak eta unean uneko akordioak izan ziren, harik eta 1877an Batzar Nagusiak eta haien gobernuak alde bakarrez indargabetu ziren arte, Espainiako Parlamentuak onartutako 1876ko uztailaren 21eko Legearen aurrean beren subiranotasun politikoa gauzatzen saiatzen zirelako.
50. 1917an, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako probintzia-diputatu hautetsiek, Gasteizen eratu zen asanbladan, botereak itzultzea edo foruak itzultzea eskatu zuten, edo, bestela, Autonomia-Estatutu bat onartzea. 1919an, Autonomia Estatutuaren proiektu bat izapidetzen hasi zen Espainiako Parlamentuan, eta, 3. artikuluan, honako hau xedatzen zuen: *“Administrazio Zentralak ez du inolako esku-hartzerik izango artikulua honetan aipatzen diren eginkizun autonomikoetan”*. 1936an, Espainiako Gorte Nagusiek Autonomia Estatutu bat onartu zuten, eta behin-behineko Eusko

Jaurlaritza bat eratu zen. 1979an Nafarroako Batzar Nagusiak eta Foru Parlamentua eratu ziren.

51. **Mugarri historikoen kate horretan, Herri hau “instituzionalizatzeko” etengabeko ahalegina egin dela ikus dezakegu eta, azkenean, EAJ-PNVren sorrerarekin eta garapen politikoarekin forma hartu zuen. “Euskaldunon aberria Euzkadi da” goiburu distiratsua eta Euskal Herriari egindako deialdi zirraragarria ez ezik, ekintza politikorako gida ere bada.** Ekintza politiko hori bide demokratikoetatik garatu du beti, euskal abertzaletasuna eta demokrazia gauza bera izan baitira historiaren bilakaeran. **Gure historian lehen aldiz, euskaldunok erakunde komunak ditugu gure hiru herrialdeetan.** Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra borondate politikoaren eta historikoki garaietan zehar iraun duen erabakimenaren ondorio dira, formulazio desberdinekin, baina beti helburu berera bideratuta: egoera bakoitzean ahalik eta botere politiko handiena lortzea eta baliatzea.
52. **Erakundeak egitura-egituratzaileak izan dira eta dira.** Botere propioaren erreferente publikoak eta euskaldunon arazoei irtenbideak proposatzeko eta errazteko gai diren erakundeak. Foru Aldundi prenazionalistek, beren garaian, Herria industrializaten eta bertako nekazaritza-abelzaintza orekatzen lagundu zuen sustapen-lana garatu zuten. Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak jauzi kualitatiboa egin dute, eta, horri esker, lurraldean eta gizartean esku-hartze integratua egin ahal izan da, eta Euskadin **politikaz hitz egiten denean, Lehendakaritza, Jaurlaritza, Legebiltzarra eta tresna politikoak dira erreferentzia nagusi.**
53. **EAJ-PNV izan zen erakunde horien nortasuna osatu zuena,** izena eman eta martxan jarriaz. Inposizioaren edo indarkeriaren lasterbideak baliatuz eta haiei men eginez inoiz bota zituztenak izango dira kontuak eman behar dituztenak, baina **EAJ-PNVn nekatu egin gara ikusteaz gugandik jasotako ideiak aplikatzen ez dituzten edo aplikatzeko asmoa ez duten baina ideia horien ize-nean kondentatzen gaituztenek lezioak eman nahi dizkigutela.**
54. 1979ko Autonomia Estatututik sortutako **Eusko Legebiltzarrak** ez du aurrekari historikorik, gure bilakaeran lehen aldia baita hiru hego-mendebaldeko herrialdeetako legegintza-erakunde erkide bat daukagula. Hala ere, badira denbora luzez

irauten duten egitura legegileen aurrekariak (Braudeletik aurrera, historialariak longé durée delakoari buruzkoak dira), denbora laburreko gertaera aldakorrekin kontraesanean egon daitezkeenak. Batzuetan demokratikotzat jo dira (adibidez, Bizkaiko Batzar Nagusiak), baina zehaztu behar dugu gauza bat ordezkartza dela eta bestea demokrazia. Demokrazia XX. mendeko fenomeno da. Euskadin 1933tik 1936ra eta 1977tik aurrera, hauteskunde-botoa emateko diskriminaziorik egon ez den garai bakarrak izan dira. Hiru lurraldeetako ekintza “parlamentario” komunaren aurrekari hurbilago bat Aldundien Biltzarrak izan ziren XVIII. eta XIX mendeetan. **Baina behin betikoa da Eusko Legebiltzarra ezarri izana, dagoeneko erreferente politiko gisa eratu eta indar politikoek eta herritarrek behin betiko onartua.**

2. BEHARRIZANAK ASEBETETZEA

55. **Euskal nortasuna** egungo errealitatea **osatzten duten indar “egituratzaileen”** mende dago. Hau da, *“Munduko ekonomiaren epe luzerako jokaera erabakitzen duten osagaiei eta harremanei modu sakon eta iraunkorren eragiten dieten indarrek”* baldintzatuta dago. **Hainbat eremutan eragiten duten eta mota guztietako desberdintasun-arrailak sortzen dituzten indarrak dira: desberdinkeria ekonomikoa, genero-desberdinkeria, belaunaldien artekoa, hiri- eta landa-eremuaren artekoa, pertsona kualifikatuen eta kualifikatu gabeen arteko desberdinkeria, etab.**
56. Desberdinkeria horiek identitate kolektiboaren eraketan eragiten dute, **nekez sentituko baikara identifikatuta ondo tratatzen ez gaituen kolektibo batekin.**
57. Beste edozein giza taldek bezala, euskal gizarteak baditu gairitu gabeko irakasgaiak eta gizartean parte hartzeko espazioak, hobetu beharrekoak. Baina baditu bere indarguneak ere, eta, oro har, gizarte-bidegabekeria mota desberdinen aurrean sentsibilizatuta dagoen gizartea da, eta, gainera, dinamismo handia erakusten du bere burua antolatzeko orduan, horiei aurre egitera begira. **Oreka eta gizarte-kohesioa bilatzea, gaur egun, euskal nortasunaren balioetako bat da**
58. Gaur egun ezagutzen dugun kohesio soziala lortzen lagundu duten lankidetzaz zibikoko mugimenduak ezin dira behin betiko lorpenatzat hartu. Ezein

herrialderen historian ez da lortu bizitzan etengabe aurrera egitea edo etengabe hobetzea. **Historia erregresioz eta ustekabeko irauliz beteta dago.** Har dezagun denboran oso urrun ez daukagun adibide bat. Pentsa dezagun nolako atzeraldia ekarri zuen Gerra Zibilak gerraosteko belaunaldientzat. Ekonomiari, gizarteari eta politikari dagokienez, atzerapen handia eman zen, eta 20, 30 eta 40 urte gaingitu behar izan ziren, hurrenez hurren. Beraz, 1959ra arte ez zen lortu Errepublikako maila ekonomikora bueltatzea (Egonkortze Plana); 60ko hamarkadara arte ez ziren sortu elkarte-, langile-, auzo- edo kultura-mugimendu botereitsuak; eta Francoren heriotza eta trantsizio demokratikoa iritsi behar izan ziren herritarren erabateko parte-hartze politikoa lortzeko.

59. Une honetan etorkizunari buruz egin dezakegun edozein iragarpen beti izango da ariketa arrisku-tua. Gaur egun, ordea, **zentzuzkoa dirudi iragartzea epe ertainera begira proposatzen den identitate-eredu orok edo garatu nahi den edozein politikak kontuan hartu beharko dituela hainbat aldagaik gure erkidegoaren bizi-kalitatean eta ongizatean izan ditzaketen ondorioak.** Batzuk unibertsalak dira, hala nola globalizazioaren indar egiturazailak eta gizarte digitala, eta horiekin batera ongizate-estatuaren narriatzea, joera desdemokratizatzaileak eta migrazio handiak. Horiei gehitu behar zaie gure lurraldean eman beharko den zerbait: **belaunaldien arteko erreleboa, hau da, hamarkada batzuen buruan protagonismoa hartuko duten pertsonak.**

2.1. GAZTEAK: BEREN NORTASUNAK ZENTZU FUNTZIONALA DU

60. **Euskal gazteak – Horrela kalifikatzen ditugu 17 eta 35 urte bitartekoak – pragmatikoak dira, helburu sozialak dituzte, parte-hartze politikorako lekurik ez dute eta mugikortasun geografiko eta laboral handia dute. Indibidualtasunarekiko errespetua balioesten dute eta gizarte-lankidetzarako joera erakusten dute, baldin eta gizabanako gisa eragiten dieten edo interesatzen zaizkien gaiak badira.**
61. **Natibo digital diren heinean,** haien sozializazio-prozesuek ezaugarri bereziak dituzte. Gazteenak mundura etorri dira mugikorra eta tableta besapean, baina Internetek dena hartzen du beren bizimoduan eta haien jarduera asko pantaila bate-tik igarotzen dira. Sozializazio-prozesuan, hau da,

persona gisa garatu diren prozesuetan, familiak, eskolak eta lagunek ez ezik, eragile berriek ere esku hartu dute. MASS MEDIAK eta Internetek ahalbidetzen dituen komunikazio-moduek garrantzia esanahi handia izan dute beren garapen pertsonalean.

62. **Gazteak arazo ukigarriak konpontzeaz kezkatuta daude:** enplegua, etxebizitza eta emantzipatzeko ahalmena. Horrek zaildu egiten du beste balio ukiezin batzuk finkatzea. Ez dira sentitzen gizarteko protagonista aktibo, pasibo baizik. Mendebaldeko gazte guztien indibidualismoa eta desafekzio politikoa partekatzen dituzte. **Bes-talde, beren asmoak partetzeko ekintza-tarte txikia geratzen zaie, erakundeek ia dena hartzen baitute. Beren intereserako parte-hartzera irekitako indibidualistatza edo sofistikatu eta altruistatza jo genitzake.**
63. **Beren nortasuna oso lotuta dago ikurrekin:** Talde gogokoenaren bandera edo lauburu bat apaingarri gisa jai-mota jakin batzuetara joateko. Euskal nortasunaren pertzepzioak ez du eragin politikorik, uste baitute politika profesionalizatu egin dela, eta, salbuespenak salbuespen, ez dute politikako profesional izan nahi. Era berean, ez dira liluratzen aberri-lorientatik, ez eta askatasunaren eta herriaren euskalduntzearen aldeko iraganeko borrokengatik ere. Haientzat, horiek guztiak beren biografian finkatuta daude. **Ondorioz, beren afekzioak esanahi funtzional bat du: aberria da konpontzen duena, bizitza hobe bat lortzeko bidean funtzionatzen duena.**

2.2. DIGITALIZAZIOA ETA GLOBALIZAZIOA: SILIZIOAREN GARAIA

64. Gaztedi pragmatikoak eta etorkizunaz kezkatuta dagoenak gaur egun gure prestakuntza-zentroetan eskura ditzakeen gaitasun eta trebetasunen multzoak egungo inguruabar profesionalei baino ez die erantzuten. Beraz, erraz asma daiteke, teknikak aurrera egiten duen azkartasunagatik, **neska-mutil horietako askori egokituko zaiela beren burua berrasmatzea, gaur egun imajinatu ere egin ezin ditugun lanpostuak betetzeko.**
65. Aldaketa teknologikoaren abiadura aparte-koa da eta etengabe bizkortzen ari da. Adimen artifizialaren eta robotikaren aurrerapen geldiezinaren aurrean, talaia unibertsiariorik ahots kualifikatuek hitza hartu dute **kapitalismo digitalak izan dezakeen bilakaera ilunaren inguruan**

- ohartarazteko, non Oinarrizko Errenta Unibertsalaren azpian proletariotza kognitiboaren ordezkapen baketsua egiteko ahalegina egin daitekeen, langileen ordezkari lanpostuetan era guztietako robotak jarri.
66. Etorkizunak esango du zientzia-fikziotik sortzen direla diruditen egoera horiek errealitate bihurtzen diren ala ez. Baina, gaur egun, egitate bat egiazta dezakegu: **enpresa teknologiko handiak oligopolio global moduko bat dira, bilioitan zenbatu daitezkeen kapitalizazioarekin**, planetako ekonomia handien aurrekontu publikoei itzal egiten dietenak. Ondorioz, **desberdinkeria sozialak areagotu egiten dira eta tentazio antidemokratiko absolutista eta totalitarioetan erortzeko arriskua dago**.
67. Ez dirudi gure gizarteari David txiki hori izatea dagokiokeenik, berak bakarrik jokatuz erraldoi handia menderatuko lukeena. Hala ere, bere jarduera-esparruaren eskumenetatik eta bide demokratikoez baliatuz, Interneten pertsonaren duintasuna bermatuko duen lege-gobernantza sustatzea egokituko zaio. **Premiazkoa da datuen jabetzari buruzko arauketa bat egitea, datuen jabea nor den eta horiek merkantzia gisa zein baldintzatan erabil daitezkeen adierazteko**.
68. **Disrupzio teknologikoak**, hau da, teknologia batek merkatuko joko-legeetan, enpresa-sektoreen artean edo pertsonen bizitzan eragiten duen aldaketak, behin eta berriz pentsatzera behartuko gaitu. Aurkezten zaizkigun aukerei ahalik eta etekinik handiena ateratzeko modua aurkitu beharko dugu, bai eta esparru desberdinetan sartzen diren aldaketetara egokitzeko modua ere: telelana, etengabeko prestakuntza, gizarte-harremanen aldaketa... Testuinguru horretan, ondorengo erronka planteatzen zaigu: tokian tokikoan eragitea balio horiekin bat eginik eta esparru globalean parte hartzea, erabakiak hartzeko gaitasuna elementu funtsezko izango duten *elkarlaneko gobernantzak* ezarri gainerako herrialdeekin elkartzarekin harremanak izateko.
69. Ekonomiaren mundializazioak agerian utzi du **toki esparruan jarduteko dugun moduak zuzenean eragiten diola mundu osoan gizateriaren ongizateari**. Globalizazioa prozesu kontraesankor eta paradoxikoa delako; alde batetik, gizarteak nolabait homogeneizatzeko joera duelako, eta, aldi berean, prozesu global horren forma autonomoak sortzen dituelako.
70. Testuinguru horretan, **identitate-aldarrikapenak demokraziarako etorkizun berri bihurtu dira, baldin eta horiek aldakortasunera irekita badaude** (*Christian Coulon*). Hau da, geure buruaz jabetzea, gure nortasun pertsonala osatuz, eta beste pertsonen kiko ditugun antzekotasunez eta desberdintasunez jabetzea, haiek ulertzen saiatuz. **Aldakortasuna**, gu ezagutzearen bidez besteak ulertzeko prozesuari dagokio. Prozesu horrek harreman afektibo indartsuagoak sortzen laguntzen du, besteak errespetatzea ahalbidetzen digu, geure iritziak izateari utzi gabe. Beraz, **errespetuarekin, tolerantziarekin eta askatasunarekin** lotzen da, eta oinarrizko printzipioa da gizarte multikulturaletan bizikidetzaren harmoniatsua izateko.
- 2.3. GIZARTE KULTUR-ANITZAK: MIGRAZIOA ETA BERE ONDORIOAK GIZARTE-INTEGRAZIOAN**
71. **Ez dago benetako demokraziarik XXI. mendean kultur aniztasunari trataera egokirik eman ezean**. *Azterlan eta ikerketa askok positi-boki lotzen dute kultura-aniztasuna erakundearen (enpresak eta unibertsitateak) eta, oro har, gizartearen sormenaren, produktibitatearen eta lehia-kortasunaren hobekuntzeekin. Zalantzarik gabe, gizarte ezberdinenak dira oparoenak ere. Datozen urteetan dibertsitate horrek bere potentzial osoa zabaltzen laguntzeko erronka dugu, eta horretan jarri behar dugu gure ahalegin osoa erakundeek eta eragile sozialek* (Immigrazioarako Euskal Itun Soziala).
72. **Immigrazioari buruz Europan egin beharreko eztabaida oso urrun dago ongiaren eta gaizkiaren arteko borroka izatetik**. Alde batekoak ez dira arrazistak, eta besteak ez dira traidore irrazionalak. Ez dago eskola hoberik bidea egiteko orduan dirua eta abizena nahikoa ez diren herrialdeetan bizimodua bilatzea baino, eta lan indibiduala da kontua. Gertatzen dena da immigrazioaren ondoriozko tentsioek eragin desberdina dutela gizarte hartzaileetan, disfuntzioak edo ghettoak sortuz. Beraz, jokaera batzuk nagusitu beharko dira eta arau batzuk bete beharko dira etorkinak onartzeko, eta horiek herrialde hartzailearen funtsezko arau eta balioak onartu beharko dituzte, nahiz eta horrek haren funtsezko arau eta balio batzuk alde batera uztea ekarri.
73. **Aniztasuna errespetatzea** (kultura, jatorria, erlijioa, generoa, sexu-orientazioa) elkarbizitza-politika

eraginkor baten ardatzetako bat izango da. Horrekin batera, hezkuntzan oinarritutako aniztasunaren kudeaketa inklusiboa, kontzientzia kritikoaren sustapena eta gobernantza demokratikoaren garapena izango dira pertsonak ahalik eta adostasun gehien lortzera edo hala-beharrezko desadostasunak kudeatzera gaituko dituzten oinarriak. Horrek eragin berezia du gure artean magrebtarren immigrazioari dagokionez; izan ere, orain arte, kulturen elkarbizitzaren alde agertu dira gehien. Etorkinak maila bateraino asimilatzen badira, denborarekin herrialde hartzaileko kide oso eta berdinak bihurtzen dira, edo Y.N. Haririk zehazten duen bezala: **Haiek Gu bihurtzen dira.**

74. Euskadin finkatutako immigrazioa bertakoen %10 ingurukoa da, eta, demografia-kurbaren aurrean, etorkinen kopuruak gora egiteko premia nabarmena dago. Hori dela eta, **ezinbestekoa da elkarrekin harmonian bizitzea eta gizarte integratu berri bat lortzea, jaiotza-politika eraginkorrak garatzea bezain saihestezina.**

75. *Aniztasuna gure historia eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Kultura eta jatorri askotariko pertsonen osatutako gizartea defendatzen dugu, kulturen arteko aniztasunaren balioekin konprometituta, gizarte inklusiboa eraikitzeko. Beraz, elkartasunean, erantzunkidetasunean, pluralismoaren defentsan, giza eskubideetan eta berdintasunean oinarritutako bizikidetzaren kultura partekatu behar dugu (Immigrazioarako Euskal Itun Soziala).*

2.4. DEMOKRAZIA "ILIBERALERAKO" JOERAK ETA ONGIZATE ESTATUAREN NARRIATZEA

76. Nortasuna eragiten duten faktoreetako bat taldea osatzen dutenen beharrak asetzea izanik, bi elementu daude, duten garrantziagatik arreta eta erabateko zaintza behar dutenak: **bizi-kalitatea eta ongizatea.** Bizi-kalitatea, gizabanakoen ongizateari eta haien ahalmenak gauzatzeari laguntzen dioten baldintza-multzo bat ziurtatzen duelako. Horrek esan nahi du osasunean, hezkuntzan, ikerketan, etxebizitzan... inbertitzen dela. Ongizatea, segurtasuna sortzen duelako eta etorkizunerako nolabaiteko ikuspegia sortzen duelako. Bi faktore horiekin batera, bada hirugarren elementu saihestezin bat, ongizatea eta bizi-kalitatea lagundu behar dituena.

77. **Konfiantza sortzea** da gakoa. Ukiezin hori maneiatzeko moduaren arabera izango da, neurri handi batean, etorkizuna. Ondasun hauskorra da. Oso egoera desberdinetan erraz apur daiteke, lana ondasun urria denean, errenta ekonomikoak eskasak direnean, erakunde desberdinek (gubernua, aldundiak, udalak) batera funtzionatzen ez dutenean, osasuna bide onetik ez doanean... Konfiantza sortzea zaila da, baina are zailagoa da konfiantza horri eustea.

78. *Hitz gutxitan esanda, gero eta konplexuagoa den mundu bateko hiritarrak gara, non indar egitura-tzaile globalen eta horien ondorioen eraginpean gauden, ziurgabetasuna eta aldaketa azkarra ezaugarri dituen mundu bateko herritarrak gara, eta egoera historiko honetan geure gain hartu behar dugu gure Herri txiki hau herrialde-eskalara eramateko erronka.*

- Adimentsua
- Lehiakorra
- Bidezkoa
- Eta jasangarria

Konfiantzazko giroa sortzeko eta bizi-baldintza ekonomiko-sozialak ongizatera eta bizi-kaliterara bideratzeko gai diren erakundeekin.

79. *Tokiko leialtasunak komunitate globalarekiko betebeharrekin osatzen dituzten erakundeak, honako hauek azpimarratuz:*

- Lurrarekiko errespetua
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna
- Ezberdinarenganako enpatia
- Teknologia gizakiaren mende jartzea
- Komunarekiko konpromisoa

80. **Garai erigarria bizi dugu. Osasunaren krisi globalaren erdian gaudela, lehen sendoa ziru-dien guztia desagertu egiten da.** Europeismoa eta ongizate-estatua -guretzat, europarrontzat, gauza bera diren kontzeptuak- estualdian daude une honetan. Autoritarismoaren aldeko iritziak agertu dira Euskadin ere, Txina, AEB, Singapur, Hego Korea eta Errusia ere estatu-zentinelaren eredu gisa jartzen dituztenak. Horren guztiaren eta autoritarismoaren aurrean, guk demokrazia militantea defendatzen dugu, erantzukizunean oinarrituta. **Demokrazia soziala defendatzen dugu XXI. mendeko euskal nortasunaren ikur gisa.**

3. KIDE IZATEAREN SENTIMENDUA

Onartu eta integratuak garelako sentitzea, parte hartzaile, azken finean

81. Kide izatearen sentimendua oso garrantzitsua da identitate eraikitze orduan. **Gizatalde bateko kide dela sentitu ezean, gizakiak ez luke sustairik izango, airez egina egongo litzateke.**

82. Euskal kulturaren elementu bereziek zeregin integratzailea dute **komunitate baten memorian eta sinbolismoan oinarritzen den kidetasun sentimenduan.** Komunitate horretako kideek espazio jakin batean partekatzen dituzten eguneroko praktiken bidez sortzen da errealitatearen interpretazio jakin bat, balio-sistema bat, jokabide-ereduak, bizimoduak eta pentsatzeko moduak, eguneroko ekintzak besteekin batera bizitzeko jarraibideak ematen dituztenak. **Elkarrekin bizitzeak, futbol talde berberaren garaipeneko poza partekatzeak, kale berberetatik paseatzeak eta denda berberetan erosteak zerikusi handia du gizartearekin.** (María Gascón Stürtze)

83. Gizarte digitalean gertatu den fenomenoaren araberako, ordea, espazio fisikoak garrantzia galdu du interakzio sozialerako topaleku gisa, eta Internet bidezko komunikazioak, berriz, besteak galdu duen garrantzia irabazi du. **Ondorioz, herritarrok gero eta zabalagoa den unibertso sinbolikorako sarbidea irabazi dugu baina, aldi berean, unibertso hori gero eta zatikatuagoa da eta gero eta menpekotasun handiagoa du testuinguru eta interes globalekiko.**

84. Beharrezko gertatzen dira **espazio zatikatuan elementu komunak eta modu naturalean partekatutako sinbolo globalak aurkitzeko estrategiak, euskaldunen arteko lotura- eta harreman-elementu gisa balio dezaten.**

85. Zer elementuak eta ekintzak lagunduko dute datoren urteotan euskal komunitate bereziaren sentimendua sortzen? **Zein izango dira euskal komunitatearen ardatz/balio/ikur sortzaileak belaunaldi gazteenentzat?**

Ez dago alderdi atsegingarri, pozgarri eta goresgarriagorik zaletasun batzuk dituzula sentitzea baino, eta zaletasun horiek modu kolektiboan bizitzearen emozioa parteka dezakezula. Eta kolektiboaren zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto. Handiagoa da "zerbait" jendetsuaren partaide izatearen sentimenduaren arrakasta.

Belaunaldi gazteenentzako euskal komunitatea sortzeko ardatz nagusiak hiru dira: 1) **Esperientzia partekatua:** atal honetan kirol- eta musika-ekitaldiez hitz egin daiteke, bereziki. 2) **Lanarekin artea sortzeko harrotasuna:** atal honetan enpresa-ekintzak eta ekitaldi gastronomikoak jasoko genituzke. 3) **Gure artisten adierazpenarekin identifikatzea:** artistak, sortzaileak, komunitate baten arima dira. Adierazpen artistiko desberdinak uztartzearen eta kulturen nahasketaren aldeko apustua egin behar da, tradizionalaren eta garaikidearen arteko trantsizioa areagotuz.

Hori guztia gauzatzeko, gainera, euskararen erabileraren behar da deskribatutako hiru ardatzen ezaugarri diren elementu eta balio autentiko, natural eta berezile gisa.

86. Horrez gain, nola sortu komunitatea eta komunitate-sentimendua kontsumo-gizarte globalizatu bati lotutako dinamika eta jokabide individualista eta berekoiak areagotzen diren mundu batean? Nola eraiki komunitatea azken hamarkadetan sozializazio kolektiboko edo narratiba sozial partekatua sortzeko espazio tradizionalen haustura edo zatiketa gero eta handiagoa gertatu denean?

Ekintzaileak gara. Oso garatua dugu asoziazionismoaren kultura. Badakigu elkarrekin lan egiten. Solidarioak gara. Espazioak partekatzea eta uneak partekatzea gustatzen zaigu. Lana ondo egiteak harrotasun sentimendua ematen digu. Gogoko dugu proiektu komun baten sorreran parte hartzea. Elkarrekin lan egiteak elkartu egiten gaitu, handi egiten gaitu.

Elkarrekin sortzen dugun zerbaiten parte garelako sentiarazten digu. Erronken bidez hazi egiten gara.

Itun soziokultural batek komunitatea eraikitzen lagunduko liguken, oinarri hartuta lan komunaren balio kulturala gizarte-kohesiorako, komunitate desberdinen integratzearako eta harremanetarako, parte hartzeko eta kide izatearen eta identitate-sentimendua eraikitzearen espazio komun bat sortzeko oinarria dela.

Euskal Herriko biztanle guztiek 4 aldiz parte hartuko lukete garapen komunitarioko proiektuei lotutako "boluntariora" moduko batean. Herrialdeko hezkuntza-sisteman nahiz lan- eta elkarte-sisteman integratuta, herritarrek proiektu bat egingo lukete Lehen Hezkuntzan, proiektu bat Bigarren Hezkuntzan, proiektu bat beren lan-bizitzan zehar, eta beste proiektu bat erretiroa hartu ondoren. Garapen-aldiak eta -eremuak askotarikoak izango lirateke.

NORTASUN KOLEKTIBOEN ERAKETA ETA TRANSMISIOA

Gaur egungo testuinguruan, identitate kolektiboa eraikitzea prozesu sozial konplexua da, eta subjektuek taldeko praktika kolektiboetan aktiboki parte hartzea eskatzen du; izan ere, komunikazio-prozesuetan erreproduzitzen dira taldeak, eta `gu´ kontzientzia hartzen dute.

Prozesu hain konplexu horrek ingurune-baldintza egokiak izan ditzan, beraz, espazio fisikoetan (kalean, eskolan eta ekitaldietan) eta espazio digitaletan (komunikabideetan eta entretenimenduaren industrian) kultura anitzeko komunikazio-interakzioa sustatuko duten estrategia espezifikokoak behar dira.

Identitate kolektiboak espazio fisikoaren bidez transmititzea

Kalea. Gure kaleek eta plazek gure gizartean daudden kultura-adierazpenen barruan daudden jaiak eta ospakizunak ikusteko eta partekatzeke balio behar dute. Horretarako, komenigarria litzateke udal-erakundeek kolektibo desberdinetako ordezkariekin solaskidetzeta eta elkarrizketa bilatzea eta sustatzea.

Hezkuntzak dauka iragana, oraina eta etorkizuna bateratzeko gaitasuna, eta, ondorioz, etengabe aldatzen ari den komunitate baten parte senti daitezke herritarrak haurtzarotik. (Eskola eta Unibertsitatea). Hezkuntzak hiritartasun eredu berria osatzen du eta aniztasunaren kudeaketa inklusiboa ahalbidetzen du. Gaitasun kritikoa eta eleaniztasuna sustatzen ditu, baita ingurumena errespetatzea eta zaintzea ere. Ikasteko eta bizitzan zehar egokitzeko tresnak eskaintzen ditu. Ez daukagu euskal estaturik herrialdea “nasionalki hezteko” tresna gisa balioko lukeenik. Frantziak, III. Errepublikan, bi erakunde nazonalizatzaileen bidez egin zuen: Armée National eta Ecole National. Ez dezagun ahaztu garai hartan, 1883an, 30 milioi biztanle metropolitarratetik laurden batek soilik hitz egiten zuela frantses hizkuntza ofiziala, Eugene Weber historialari iparramerikarrak frogatu zuen bezala. (Frantsesak, nekazari izatetik herritar izatera).

87. **XXI. mendean, euskal nazioa bezalako estaturik gabeko nazio batek ez du “nasionalki hezterik” behar, eta ez du halakorik egin behar. Helburuak bestelakoa izan behar du: herriaren historia, hizkuntza, kultura, trebetasun**

teknikoak eta ikaskuntza etikoa ezagutzen laguntzea eta ildo horretan hezteak. Eraitza izango da euskal gazteriak mundua eta bizitza hobeto ulertuko dituela, eta, azkenean, jasotako ondare hori beraiek erabakiko duten moduan erabiliko dute, jakinik ondare humanistiko baten hartzaile direla. Euskal gazteria gai izango da, euskal herrialdeei eta egungo euskal komunitate globalari buruzko imajinario komun bat artikulatzeko, bertan sartzen diren pertsonak eta haien ondorengoak barne harturik. Partekatutako ondarea izango da, nortasun sentimendu askotarikoak barne hartuko eta bideratuko dituenak.

Haur eta gazte horien garapen integralean, garrantzitsua da kultur transmisioa, bereziki euskal kulturaren transmisioa, lortu beharreko helburu akademikotzat ez hartzea, baizik eta musikaren, dantzaren, bertsoen, antzerkiaren, literaturaren edo arteen bidez bizipen positiboan agertoki ireki gisa. **Desiragarria litzateke kulturaren transmisiora bideratutako programa bat izatea, kirolaren arloan dagoenaren antzekoa.** Eskola-kirola izeneko programaz ari gara. Programa horren bidez, neska-mutulek kirolarekiko duten ezagutza eta zaletasuna sustatzen da. Ildo horretan, badirudi datorren ikasturtean Gipuzkoan hasiko den *kultura eskola* programa, sortzaileen parte-hartzearekin eta gidarekin, adierazitako ildotik sortu dela.

88. *Derrigorrezkoa da gure etxe eta eskoletan haurrei irakastea egia eta sinesmenak bereizten, sufritzen duten pertsona guztienganako errukia garatzen, Lur Planetako egoiliar guztien jakinduria eta esperientziak estimatzen, ezezagunaren beldur izan gabe libreki pentsatzen eta beren ekintzen erantzule izaten* (Yuval Noah Hariri, XXI. menderako 21 ikasbide).

Ekitaldiak. Gure kale eta balkoietan presentzia handiena duten banderek gure futbol, traineru, errugbi (Iparralde) taldeen koloreak daramatzate. Kolore horiek lurralde-identitateen berezko izarran daude, eta ideologia desberdinak gainditzen dituen indar integratzaile batekin pizten dituzte bihotzak. Orain arte ez da horrelakorik gertatu **euskal selekzioarekin**, eta populazioaren zati handi batek konnotazio ideologikoak egozten dizkio oraindik. Bere potentzial integratzailea ukazina da, baina marka birkokatzea eskatzen du. Oro har, kirolaren bizipen-indarra, edozein

adierazpidetan, garatu beharreko elkartzeko eta parte hartzeko bide bat da.

Bestalde, esparru ludikoan, jai-ekitaldiek, hala nola **haurren danborradak**, non eskola guztietako haurrek tradizioarekin harremana estua duten, ereserkia kantatzen ikasten duten, marxak jotzen, baina ez buruz ikasi beharreko irakasgai gisa, baizik eta jaiaren benetako protagonista gisa, indar parte-hartzaile eta integratzaile handia du. Emakumea danborrada helduetan naturaltasun osoz sartzea eragin duen elementuetako bat izan da hori.

Kultura-arloko ekitaldi handiei dagokienez, hala nola Zinemaldia, BBK Live, Musika Hama-bostaldia edo Jazzaldiak, guztiek dituzte estrategiak, eta horiek guztiak tokiko talentuarentzako erakusleihu bihurtzen dituzte, publiko handiari begira. Komenigarria litzateke etorkizunean ildo horretan lan egiten eta sakontzen jarraitzea, eta estrategia hori oraindik praktikatzeko ez duten ekitaldi garrantzitsuetan txertatzea.

Euskal nortasunen transmisioa gizarte digitalean

89. “Z Belaunaldia” izena hartzen duen horrek bere aisialdiaren % 74 online egiten du, eta % 75 telefono mugikorraren bidez. Gehien kontsumitzen dutena online ematen diren bideoak dira. Youtubek %100eko hazkundea du urtean, eta youtube berrek eragin handia dute 8 eta 12 urte bitarteko haurren artean. Izan ere, gaur egun, youtuber izan nahi duten haurrak, astronauta izan nahi dutela esaten dutenak baino hiru aldiz gehiago dira.

Bien bitartean, *influencer*-ak entretenimenduaren industriaren erreferentziazko elementu bihurtzen ari dira, aholkulariak eta kameoetako protagonistak diren aldetik, deialdi-indarrari etekina atera nahian. Natibo digitalen mundua da, hasi besterik egin ez den mundua, eta gure gizartean sartzen dena, nortasunak transmititzeko bide tradizionalak apurtuz.

a) **Espazio zatikatuan elementu komunak aurkitzeko estrategiak.** Euskal gazteek jasotzen dituzten bitartekaritza-espazio zatikatu gehienak globalak dira. Beraz, ahalegina egin liteke espazio global horietan gazte horiek modu naturalean partekatzen dituzten sinbolorik ote dagoen identifikatzeko. Sinbolo global partekatuak baldin badaude, **euskal nortasuna berreraikitze**

balio dezakete, euskal gazteen arteko lotura-eta harreman-elementu gisa jokatzeko duten neurrian.

b) **Norberaren ekoizpena sustatzeko estrategiak:** lehen aipatu dugun bezala, zatikatutako bitartekaritza-espazio gehienak globalak dira. Era berean gertatu ohi da beren artean partekatzen duten edukia euskalduntasunetik kanpokoa dela. Toki esparruan ez dago ez harremanetarako bidearen ezta interakzio-edukiaren kontrolik ere. Ondorioz, komunikazio-bideetan eragitea zailagoa dela kontuan hartuta, **ekoizpen propioko edukia sustatzea** planteatzen da. Horrela, espazio global zatikatu horretan, berezko elementu eta sinboloak dituzten edukiak jarriko lirateke, euskal identitateak osatzen dituzten elementu gisa balio dezaketena.

2019-2020 ikasturtearen hasieran, hiru joera nagusi hauteman ziren gazteek kontsumitzen dituzten edukietan: gazteen gaiko fikziozko produktuak, neska-mutilek egiazkotasunagatik identifikatzeko modukoak. Ingurumenari buruzko programak, albisteak, dokumentalak. Eta batez ere, entretenimendua.

Ikus-entzunezkoen euskal industriak etxeko merkatura bideratutako bokazioarekin eta ikuspegiarekin funtzionatzen du. 2008ko atzeraldiak krisi handi batean murgildu zuen eta harrezkero egoera prekarioan dago. Hala ere, merkatu globalean fikzioa eta entretenimendua gero eta garrantzi handiagoa duen industriaren parte dira. Beraz, interesgarria litzateke azterketa bat egitea jakiteko **zer faktorek lagun lezaketen fikzioan eta entretenimenduan aritzen den euskal ikus-entzunezko industria bat garatzen**, lehiakortasun-baldintzetan eta nazioarteko merkatuetara ateratzeko eta berritzeko bokazioarekin. Sektorearen azterketa ekosistemaren ikuspegiarekin egin da, industria horren bi ardatzetan oinarrituta: prestakuntza (beharrezko lanbide-profilak prestatzea) eta merkatua (etxekoa eta globala).

Bestalde, erdialdeko espazio zatikatuetarako edukia sortzeko beste modu bat litzateke gaur egun ekoizten denaren aprobeitxamendu ekologikoa. Hau da, gomendagarria litzateke antzezlanen eta **entretanimenduko telebista-programen “unerik onenetan” oinarrituta** egindako pieza laburrak “zaitzeko” estrategia abian jartzea, kontsumo-bideetan jartzeko.

Gazteek erabiltzen dituzte (youtube, Snap originals, tik tok) eta hedatu egiten dituzte, beharrezko ikusgaitasuna eta publizitatea emanez, xede-publikoari zuzendutako sustapen-estrategien bidez.

Komunikabideei dagokionez, komenigarria litzateke estrategia digitalaren aldeko apustua egitea, gazteei zuzendutako entretenimenduko edukiekin, bai eta haien intereseko gaiei buruzko dokumentalak eta erreportajeak egitea ere. Bestalde, euskarazko ekoizpen artistikoari dagokionez, ona litzateke irizpide artistikoetan oinarritutako sustapen selektiborako protokoloak ezartzea, kontuan hartuta horien dimentsio komertziala eta mainstream-dimentsioa positiboak eta eraginkorrak direla.

Azkenik, gastronomiak era guztietako hartzaile eta kulturetarako izan dezakeen erakargarritasunak elementu egituratzaile gisa balio beharko luke eta hedabideetan ere bere isla izan beharko luke gure herrikide berrien gastronomia eta sukaldaritzari ikusgarritasuna emanez.

90. Euskal identitateari ikusgarritasuna ematea

- Eskolan eta lan esparruan etorkinentzako *ongi-etorri* planak indartzea
- Herrialde ezberdinak eta euskal nortasuna ikusgarri egitea bisitari eta turistentzat

4. AUTOESTIMUA

Gizabanakoak bi indarren artean harrapatuta gaude eta indar biek aldi berean eragiten dute gugan. Kide izateko beharra sentitzen dugu, talde handi bateko kide izateko beharra eta, aldi berean, ezberdintzeko beharra ere badugu, besteongandik bereiztekoa.

Taldeak, beraz, norbanakoek gure onura psikologikoaren bila erabiltzen ditugun baliabideak dira. Hobeto sentitzen gara gure taldea gainerako taldeak ez bezalakoa dela uste badugu, eta zerua ukitzeraino iritsi gaitezke onena dela sinesten badugu. Puntu horretan eror gitezke gure buruarekin edo gure egoerarekin ederresteko tentaldian eta gure auzokideekin alderatuta beraiek baino gehiago garelako sinesteko uste okerretan, arestian planteatu dugun moduan.

Txanponaren beste aldean dugu taldearekiko identifikazio positibotik sortzen den autoestimua

ondorio onuragarriak dakartzala, kolektibitateak pertsonak bultzatzen baititu taldearen helburuak lehenestera norbanakoaren interes edo helburuen aurrean. Lehiaketaren orde, lankidetzat bilatzea erabaten ditu.

Autoestimua da nor bere kabuz pentsa deza keela ulertzea, bizitzarako erabakiak hartzeko gaitasuna dugula, zioritasuna bilatzekoa.

5. JARRAITUTASUN ZENTZUA

SINBOLOAK ETA TRADIZIOAK

91. Euskal imajinarioa osatzen duen ondare ukiezina: oroimenaren lekuak.

Komunitateak, herriak edo nazioak, beti izan ziren eta gaur egun diren bezala, **tradizioak ziren, komunitate horiek beren iraganari buruz sortu zituzten kontakizun edo mitoetatik jaso direnak eta mito horietan oinarrituak. Kontakizun hori sortzea askotan asmakizuna da, baina asmatzea ez da gezurra esatea, sortzea baizik.** Erakunde horien nortasuna beren kulturarekin estuki lotuta dago, eta kultura hori, funtsean, iragana orainari zentzua emateko erabiltzea ahalbidetzen duen mekanismoa da.

92. Francois Mitterrand Frantziako Errepublikako presidentea izatera iritsi zenean (1983), Pierre Norari eskatu zion historiaren eta memoriaren arteko elkargunea bilatzeko. Bederatzi urte beranduago, "Lieux de memorie" izenekoa atera zuten, zazpi liburutan, 120 historialari baino gehiagok egindako 5.560 orrialde atera ziren argitara. Bere oinarrietatik sortu den beste mito bat da; Frantzia ezberdinen kaleidoskopioa, nazioaren disezioaren bidez, Errepublika eratuz, Frantzia ezberdinak bateratzen dituena, non sinboloei zor zaien garrantzia ematen zaien. **Desiragarria litzateke euskaldunok horrelako obra bati ekiteko eta amaitzeko gai izatea. Oroimenaren lekuek, funtsean Kultur ondarearen ulermen nazionala irudikatzen dute eta nazioaren nolabaiteko ideia eskaintzen dute.**

93. Oroimen eta ondare horren funtsezko zati bat sinboloak dira. Horregatik da garrantzitsua **sinboloak nortasuna osatzen duten elementu gisa balioestea.** Euskal ikur edo ondare nazional ukiezin horietako batzuk deskribatuko ditugu.

94. **Ereserkia.** Ereserkiak izugarriko gaitasuna dute sentimendu partekatuak adierazteko, komunitate bat lotzeko. Ereserkiari merezi duen garrantzia ematen ez badiogu, gure kudeaketa politikoa izugarri disonantea izango da. Abesbatza batean kantatzen duzunean, arrazoa daramazula uste duzu, zu bezalako beste berrogeita hamar ere gauza bera oihukatzen baitute. 50 izan beharrean 50.000 badira, nortasun-adierazpen baten aurrean gaude. Gora Ta Gora (Euzko Abendaren Ereserkija), letra ofizialik ez duena (agian hobe hala izatea); jarraitzeko –musikaren solemnitaez aparte–, bere letra ez da arranditsu jotzen diren beste herrialde batzuetakoaren oso desberdina, beren himno nazionalen letrak konparatzen badiugu (“gure arbasoen lurra”, “Ildoa”, “Isuritako odola”, “Guztien gainetik”, “Jainkoak Erregina salba dezala”,...). Beste ereserki bat daukagu, **“Gernikako Arbola”** izenekoa, xumea, batere arranditsua ez dena, anaiartekoa, buruz ikasteko erraza eta euskal doinua duena, zortzikoa. Gure lanaren ondorio operatiboa izan liteke ‘Gernikako arbola’ euskal ereserki ofiziala proposatzea.

95. **Bandera.** Ikurrinak onarpen orokorra du mendebaldeko hiru lurraldeei buruz hitz egiten badugu (Euskal Autonomia Erkidegoa-EAE). Lorpen handia izan da, Euskadiko espainolisten (PP) abiapuntua ez baitzen ikur hori onartzearen aldekoa. Oso bestelakoa da Nafarroako egoera, Ikurrina sinboloa baita, baina, neurri batean, nafar-euskaltzaleen eta nafar-nafarren arteko muga sinbolikoa baita. Iparraldean, bereizketa gisa, erdi folkloriko-turistikoa, erdi identitarioa eta azken hamar urteotan, batez ere Euskal Elkargoa sortu zenez geroztik, eskualdeko ikur politiko gisa onartzen da. Ondorioz, gero eta onartuago dagoen sinboloa da, arbuiorik eragiten ez duena – Nafarren zati garrantzitsu baten aldetik izan ezik – Eta nabarmendu beharrekoa. Nafarroan Ikurrinari buruzko eztabaidak ertz bereizgarria du. Duela hogeita bat belaunalditik hona Gaztelari atxiki zitzaizkion nafar herritarrena baino ez da estatu bat osatu zuen lurralde baskoi bakarra, Nafarroako Erresuma. Beraz, bere bandera orain arte babestea lortu den nortasun propioaren sinboloa da. Eztabaidagarria da gure artean Erresuma Zaharrean jatorrizko euskal estatua ikusten dutenen ideia.

96. Egunen batean **euskal eskualdeen konfederazio bat eratzeko helburua lortuko balitz,**

Hirurak Hiru bat, esaterako, Ikurrina Nafarroako Parlamentuko edo Gobernuko banderen patioan onartuko da, Nafarroakoarekin batera.

97. **Herriaren izena.** Eguneroko usadioari erreparatzen badiogu, kontua nahiko argi dago. Gaztelaniaz eta frantsesez Pais Vasco- Pays Basque. Euskaraz, Euskal Herria. Euskadik ez du ia erabilerara sozialik, eta, pixkanaka, erakundeen bizitzara murrizten ari da. Atzerritik aipatzen gaituztenek “Basque Country”, “Baskenland”, “Paesi Baschi” eta abar esaten digute, hau da, erro bera: Euskal Herria edo Euskaldunen Herria. Beraz, Euskal Herria-Euskadi, Euskal Herria-Pays Basque, lau izendapen, hiru hizkuntza ofizialetan, elkarrekin biziko diren herri berarentzat. Baina, izenen aniztasun horrek diluitu al dezake herri baten nortasuna? Ameriketako Estatu Batuak, Britainia Handiko Erresuma Batua eta Ipar Irlanda edo Jugoslaviako Mazedoniako Errepublikak ohia bezalako adibideak aztertuz gero, ezetz esango genuke. Baina erabilerara eta korrante historikoak ikusiz gero, egoera horiek, konposatuak edo zatikatuak, USA, UK edo jatorrizko izendapenetan amaitzen dira, xehetasun geografikoekin: Iparraldeko Mazedonia. Hizkuntzaren araberrako izendapen baten erabilera (País Vasco-Pays Baque) (Euskadi-Euskal Herria) saihestezina da eta saihestezina izango da azkenean finkatuko dena, herritarren artean euskararen ezagutza eta erabilerak duen hedaduraren arabera eta (Euskadi) instituzionalak gizarte-hizkeran (Euskal Herria) duen garrantziaren arabera. Nire iritziz, Euskal Herria terminoa nagusituko da azkenean, gazteen gustukoena delako, nahiz eta gazteria, ezagutzen hasi garenez, termino homogeneo bat ez den (belaunaldi berean gazteen artean desberdinak direla esan dezakegu), ezta zuzena edo lineala ere (une historiko bakoitzean jokaera ezberdina erakusten baitu).

98. Tradizioak

Tradizioa ez da iragan zaharkitu baten testigantza; orainaldia animatzen eta informatzen duen indar bizia da. Izan zena errepikatuzetik urrun, tradizioa da irauten duenaren errealitatea, ondorengoei transmititu aurretik fruitua emateko baldintzapean jasotzen den ondarea. (Igor Stravinsky)

Tradizioak berarekin dakartza jarraitutasuna eta eboluzioa. Komunitate bateko kideei nolabaiteko jarraitutasun zentzua emateko eginkizuna betetzen du.

Gaur egun egiten ditugun sagardotegi-planek, esaterako, ez dute zerikusirik Txirrita bertsolari handiaren garaietan egiten zirenekin. Eibarko Txikito pilotari ospetsuak ere ez zuen imajinatu Astelehena frontoiko hormak egunen batean berdez margotuko zirenik, pilota telebistako pantailetan nabarmendu zedin. Sarriegi konpositoreak ere ez zituen emakumeak danborradan imajinatu bere martxa egin zuenean. Nork esango zuen duela urte batzuk Aurrekua ezkontzetan dantzatuko zela eta Internet bidez merkaturatuko zela?. Edo Agur Jaunak solemneak letraz aldatuko lukeela laikoa izateko eta emakumeak barne hartzeko,...

Tradizioa, maitasunez belaunaldiz belaunaldi pasatzen dugun ondare immateriala da. Urak bidea egiten duen bezala joan behar luke, gelditu gabe, denboran aldatzen diren orografietara egokituz, bere patua etengabeko sorkuntza eta eguneratzea da, berritzea edo hiltzea.

99. Gertatutakoari buruzko kontakizun bateratua / ETAREN amaiera

ETA izan zen lorpen politikoak kostatzen ahala kostatzen ahalegin sutsuaren adierazpena, porrot egin zuena. Bere jatorrian mugimendu antikolonialisten tesiek eraginda, Franz Fanon garaiko ideologoak bezala (Lurreko oinordetzarik gabeak), indarkeriak kolonizatuei zapalkuntzaren paralisia gaintzen eta nortasun partekatutako berri bat sortzen laguntzen diela uste zuen. ETAK ez zuen bere golkorako inoiz galdetu ea inor izan daitekeen bere indarkeriazko ekintzen biktima bat baino biktima handiagoa, haren motibazioa edo testuingurua edozein izanda ere. Era berean, ez zuen hausnartu bitarteko terroristen bidez defendatutako subiranotasun nazionalak moralki onartezin bihurtzen ote zuen legez defenda zitekeena. Are gutxiago, terrorismoa oso estrategia militar interesgarria ez dela, erabaki garrantzitsuak etsaiaren esku uzten baititu (ikus Hipercor, Vic, Zaragoza, Madrilgo aireportuko T-4). Terroristek ez dute armadako jeneral gisa pentsatzen, antzerki-ekoizle gisa baizik. Izuak ezin du arrakastarik izan erakustaldirik eta publizitatearik gabe. Eta horretan aritu zen, funtsean, 1977an demokrazia iritsi zenetik, gertaera politiko erabakigarrietan eragiteko gaitasuna esponentzialki eta pixkanaka murriztu zenetik. ETARik gabe, autonomia izango genuke? ETARik gabe, euskarak gizartearen onarpena, ezagutza eta erabilera izango luke? ETARik

gabe, abertzaletasunak babes bera izango luke hauteskundeetan? **Halako baieztapenik ez digu balio**, zeren eta ETAK ez baitzuen Autonomia eragozteko lortu, bortizki borrokatu arren, eta ez zuen euskara iraindu besterik egin bere bizi-raupenaren izenean hiltzean, eta abertzaletasunaren sendotasunari dagokionez Sortu/Bildu da bere ondarea. Laburbilduz: bere esku-hartzearen ondorioz iraunkorra legezketasuna onartu duen alderdi politiko bat izan da, "Lurralde-zatiketa" eta parte-hartze instituzionala barne. Osoko zuzenketa bat da, azken berrogei urteetan egin duen guztia goitik behera zuzentzea, alegia. **Ezker Abertzalea izenekoak onartu ezik ETA eredu negatiboa izan zela, ondo barneratu beharko luketen zerbait urritasun moralean ez erortzeko, bere esperientziaren hurrengo kapituluak kristal oso ilun baten bidez begiratzera behartuta egongo da.**

6 ESANAHIA

EGITEN DUGUNAREN ZENTZUA ETA XEDEA

100. Nazioa, jatorri komuna izateaz gain, bizitza ona bilatzeko, horrek hobeto funtzionatzeko eta bizitza komunean jarraitzeko erabakitasun argiz berresten duten pertsonen komunitatea da.
- Nazionalismoa nazio baten botere politikorako borondatearen adierazpena da, estatu anfitrioiarekiko gertakari berezietan – Hizkuntza, kultura, erakundeak – oinarritua.**
101. Nire nazioak nire leialtasuna merezi duela eta nire herrikideekiko betebeharrak bereziak ditudala sinestea, haien zaintzea eta haien izenean sakrifizioak egitea da nazionalismoaren forma eguneratua. Kapitalismo globalaren indar anonimoa eta inpersonalek alienatutako mundu batean bizi izan gara, osasun-, hezkuntza- eta ongizate-sistemen "jibarizazioaren" beldur gara. **Mundu osoko pertsonen segurtasuna eta zentzua bilatzen dute beren bizitzetan eta bilatzen duten hori nazioaren magalean aurkitzen hasten dira.**
102. **Esaten ziguten sarearen aroak nazioen aroa gaitutako zuela, baina ez da horrela gertatu.** Munduak bere bidea darama eta Trump-en "America First" aldarria, Johnson-en Brexit-a, Putinen "Errusia etxea" edo Narendra Modi-ren indiotasuna, naziora itzultze horren adibide

negatiboak dira, joera horrek adibide positibo ugari dituen arren herrialde baketsu, oparo eta liberaletan, hala nola Suedian, Alemanian edo Suitzan, nazionalismo-zentzu demokratiko eta bizia baitute. **Baina “naziora itzultzea” beharrezkoa izan arren ez da nahikoa;** izan ere, XXI. mendeko erronka handiak, klima-aldaketa, migrazioak, pandemiak, energia-iturri berriak, disrupzio teknologikoa, globalak izaten jarraituko dute, denok baikara zibilizazio edo “covidlizazio” bakar eta gatazkatsu bateko kide, orainari erreparatzen badiogu.

103. XXI. mendeak funtsezko indar historikoa osatzen duten identitateen ikur zahar/berria markatzen digu etxeko atean. Gizarte globalean, **behar den komunitatean oinarritutako identitate-modu berri bat da** norberarengan pentsatzea, hurbi-lekoenekin jardutea, komunitateaz arduratzea, auzolana egitea.

6.1 AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA

104. **Herria da inoren aurrean belauniko jartzeari uko egiten dion nazioaren zatia, Europako estatu-nazioek barne hartzen dituzten herriek ez zuten beren nazioa aukeratu.** Sentimendu nazionala eta nazioaren eraikuntza inposatu egin zitzaizkien. Hortik dator nazionalismoaren sorrera Europan. Nazionalismoa pasio bat da, eskatzen duen nazioa sortzera deliberatua, eta proposatzen duen ekintza politikoak beti izan behar du unean uneko egoerari eman beharreko erantzuna, ez eztabaida teorikoa edo sentimenduen adierazpena. Baina grina horrek ez ditu denak berdin harrapatzen. Inguruabarrei, egoerari egokitzea benetako jarrera bezain beharrezkoa da aurrez aurre jartzea demokratikoki desberdintasunak ebazteko. Konfrontazio demokratiko handiena dator nazio gisa aitortpena lortzeko modurik onena zein den denon artean erabakitzeko arketatik.
105. Euskaldunok **bi estaturen eremu juridiko eta politikoan** bizi gara, Espainia eta Frantziarenean. Estatu horiek gero eta demokratikoagoak diren heinean, batasuna eta aniztasuna elkarren kontrako baino, elkarren osagarri izango dira. Bi horietako batean demokraziak beheranzko edo ahultzeko joera hartuko balu, euskal herritarroi ez litzaiguke geratuko autodeterminazio-eskubidea baliatzea baino beste aukerarik.

6.2. EUROPA

106. Europako erregioetatik erregioen Europara.

Estatu nazioanitz baten barruan eta Europaren instituzionalizazio politikoaren baitan, eraikuntza politiko post-nazionalari ekitera begira, nazioari, **euskal nazioari, egozten zaizkion subiranotasun-ezaugarriak eskuratu behar dira gutxienez,** hau da, Euskadiko demos-arekin eta borondate orokorrarekin bat etortzea, euskal komunikate nazionala baldintza onenetan egon dadin Europaren barruan politika post-nazional eta post-subiranoa egiteko.

7. KONKLUSIOA

EUSKALDUNA IZATEA DA EUSKALDUNOK IZAN NAHI DUGUNA

107. Joan den mendeko azken hogei urteetan, Jugoslaviako, Libanoko eta abarretako gerren inguruan, **nazio identitateen eta nazionalismoaren hilgarritasunari buruzko eztabaida sutsua eman zen.** Hedapen handia lortu zuten, besteak beste, Amin Maaloufen “Identitate hiltzailak”, Benedict Andersonen “Komunitate irudikatua”, Anthony Smithen “Nazioen jatorri etnikoa” eta Eric Hobsbawmen “Nazioak eta nazionalismoak 1788tik” saiakerak. Azken honek, zirkulu marxistetan erreferentziazko egileak, honela formulatutako metafora eder bat egin zuen: “Minervaren hontzak hegaldia altxatzen du gaua erortzean”. Minerva erromatar jainkosa da, Grezian Atenea izango litzatekeena, eta jakinduria, arteak eta gerraren gidaritza irudikatzen ditu.
108. **Hobsbawmek, lirismo politikoarekin, nazionalismoen gainbehera ukalezina adierazi nahi zuen. Beste sintagma baten ifrentzua zen: Francis Fukuyamaren “Istorioren amaiera”, sistema liberal kapitalista munduan bakar bezala kotsakratu nahi zuena, sobietar sistemaren erorketaren ondoren, hain zuzen ere, garai horretan bertan.** Hogeita hamar urte geroago esan dezakegu lehoiak ez zirela margotzen zuten bezain zientifikoak. Nazioen sorrerako mitoei gertatzen den gauza bera gertatzen da berrogei lapurren kapitainari gertatutakoarekin ere; izan ere, Ali Babaren atea klarionaz seinatu zuenean, konturatu zen Morganak antzeko markak jarri zituela kaleko atean eta ez zuela benetako adierazpena bereizteko modurik.

109. Demokrazia ez da administrazio-sistemak erabiltzen dituen prozedura formalak bakarrik, ezta eliteak, koadro politikoak edo alderdiak hautatzeko eragiketak ere. Kultura espezifikokoak sortzea ere bada, **tolerantzia**, bestearenganako **errespetuan** oinarritutako bizi-arauetan, guztion ongiaren ideia sendotik oinarritutako **elkartasun-moduetan** edo **publikoaren etikan** oinarrituak, ukiezinak eta ukaezinak diren ondasun gisa. Euskal etorkizunak ez du zentzurik, demokraziaren balioak garatzearen eta sakontzearen bidetik joan ezean.
110. XXI. mendeak atean identitateen marka zahar/berria seinalatzen digu, berebiziko indar historikoa baita. Gizarte globalean, komeni da nork bere buruaz pentsatzeari uztea, gertukoenekin jardutea; izan ere, besteez arduratzea eta besteen onbeharrez jokatzeko **BEHARREZKO KOMUNITATEAN** oinarrituta dagoen nortasun forma berri bat delako.
111. **Euskal nortasuna eta demokrazia funtsezko bi epifania dira Euskadin.** Lehenengoak adierazten du herri bereizi baten existentzia, eta alemanek bateratze-prozesuaren aurretik oihukatu zutena adierazten du: Herri bat gara!; bigarrena da herri horrek bere osotasuna lortzen duela demokratikoki eta bateratuta zera adierazten duenean: Herria gara!
112. **EAJ-PNV ez da inoiz demokraziaren aurka egiteko tentazioan erori.** 125 urteko ibilbideak demokraziarekiko konpromisoa berresten du. Hori esan dezakeen euskal alderdi politiko bakarra da, horrela izan zelako. Sekula ere ez zuen sistemaren aurkako iraultza bortizik babestu; ez zuen estatu-kolpeetan parte hartu, eta ez zen jarduera terroristetara bideratu. EAJ-PNV eredugarria da "Zerua erasoan hartu" nahi dutenen aurrean, nortasunaren defentsa positiboa egin nahi duelako baliabide demokratikoen eta pazientzia demokratikoaren bidez.
113. **Gure estrategia da nagusitu den iluntasunik ere abantailak ateratzea.** Izan ere, Hobsbam eta nazionalismoaren beste "forentse" batzuk ez bezala, komunitatea estimatzea eta komunitate batek bere burua ezagutzea, jakinduriaren hontza bezala, iluntzean iristen baitira. Eta ez dezagun inoiz ezagutu Europan XVI. mendean jada ahaztuta zeuden 450etik gora

nortasun politikoen madarikazioa: **aberria aitorzen dela galdutzat jotzen denean.**

124. **Etengabeko birfundazioan definitzen diren Euskaldunen autobaieztapen horretan, ikur bereizgarri dira gure burua gobernatzea eta gero eta botere politiko handiagoa eskuratzeko.**

8. ERANSKINAK

HIZKUNTZA, BERTSOLARITZA, LITERATURA

Martin UGALDEREN "Hablando con los vascos" liburuan, Koldo Mitxelenak zera erantzuten du: "Nik diot, bai, hizkuntzaren eta herriaren artean funtsezko harremana dagoela, **gure herria historikoki modu garrantzitsuenean eratu duen elementua, hots, Euskalerrria, Vasconia edo beste edozein izenekin deitu, hizkuntza izan baita niretzat**". Hizkuntza -Euskaltzainburu izandako Aita Villasantek "Euskararen auziaz" liburuan idazten duen bezala- normaltasunez ikasten da hiztunen komunitatean murgilduta. Komunitatea hizkuntzaren subjektua da. Eskolan edo euskaltegietan soilik irakasten den gizarte batean, transmisioa, indibiduala izateaz gain, sustraigabetu egiten da. Sustraitzeko gaitasun handiena duen komunikazio-tresnetako bat bertsolaritza da. Euskal literatura "idatzia- ren" hasieran bazen bertsolaritza. Bernat Etxepare, lehen euskal idazlea (1545) poeta herrikoa da, bertsolaria. Etxepareri buruz Jesus Maria Leizaola jaunak ondorengoa idatzi zuen: "Etxeparek bere bertsoak euskal poesian gutxienez bi mende lehenagotik ohikoak ziren metro eta ahapaldi berberetan konposatu nahi izan ditu". Gaur egun, euskal gizartean euskarak duen presentziak gozatzen dugunean, euskararen ikaskuntzaren eta euskararen erabileraren arteko desproporzio izugarriak, ahobiziaren eta belarriprestaren figuraren artekoak, bide berriak saiatzera behartzen gaitu. Ahalegin horretan bertsolaritza altxor ballotsu gisa agertzen zaigu. Bertsolariek publiko heterogeneoa biltzen dute, bertsolaritzaren praktika Euskal Herriko lurralde guztietara hedatzen da. Bere ekarpen handia euskal hizkuntzaren elkarbizitza da, ematen duen dibertsioa, eta feminista, ekologista, preso ohi, kirolari eta alderdi ezberdinetako

boto-emaielen audientzia heterogeneoa. Giro plural horretara egokitzen jakin du bertsolaria, doinu berrituekin eta gero eta gai gehiago erabiliz. Euskal idazleen belaunaldi berri batek gehiago estimatzen du bertsolaritza, horietako asko, izan ere, bertsolaritzatik datoz Bernat Etxeparerekin gertatu zen bezala. Hizkuntza biziaren barruko bertsoa euskararen biziraupena azaltzen duten faktore dinamizatzaileetako bat da.

Bertsolaritzaz gain, badira Iparraldean gorde diren beste bi adierazpen artistiko ere, ahozko literaturari dagozkionak. Pastoralaz eta Maskaradez ari gara. Biek, hitza, musika eta dantza uztartzen dituzte, baita kolore kode jakin bat ere. Urdinak ongia irudikatzen du eta gorriak gaizkia.

Maskaradak inauteriei lotuta dauden bitartean, Pastoralak Europako Erdi Aroko eta Errenazimmentuko Misterioen antzerki-tradiziotik sortzen dira. Pastoralak euskal literaturaren adierazpen dramatiko herrikoi osoena eta garatuena da. Bertsolariek ez bezala, pastoralistek antzerki eta eszenaratze handiagoa dute. Zuberoako biztanleek antzeztzen dute urtero, eta ekoizpen kolektibo bihurtzen da, herriko ia herritar guztiek hartzen baitute parte eszenaratzean edo prestaketa lanetan. Pastoralak eta bertsolaritza herriak eginak diren eta herriarentzat pentsatuta dauden bezala, gaur egun publiko heterogeneoa partekatzen dute biek. Pastoralak Zuberoan baino ez dira egiten eta horrek azaltzen du gaur egun bizi duen desabantaila, baina berdin jarraitzen du izaten ahoz eta kantua bidez adierazten zen nortasun-seinalea.

Etxeparek bere liburua *Linguae Vasconum Primitiae* izenburupean argitaratu zuen 1545ean, eta ia une horretatik XIX. mendera arte euskal literaturak bere izaera pragmatikoa eta gai erlijiosoaren pisua izango ditu ezaugarri. XIX. mendearen etorrerak, hala ere, prosa narratiboaren, euskarazko kazetaritzaren eta olerkigintzari emandako bultzadaren jatorria markatuko du. XX. mendetik aurrera, euskal eleberria, poesia modernoa, gerra aurreko literaturaren berpizkundea, erbesteko eta gerraosteko literatura agertuko dira, eta 60ko hamarkadan, euskararen batasunaren eskutik, gaur egunera arte iritsi den letren loraldia gertatuko da. Atxaga, Aresti,

Saizarbitoria, Lertxundi, Sarrionandia, Txillardeggi, Uribe eta Mirande dira euskal letren erreferente nagusiak, eta baita Landa, Urretabizkaia, Mintegi, Borda, Osoro, Jaiio, Iturbe eta Rodriguez bezalako emakume idazleak ere. Genero espektro osoa lantzen den literatura baten potentzia sortzaile interesgarrienak dira, saiakeratik hasita. Bere literatur lanekin egungo euskal komunitatearen unibertso sinbolikoa elikatzen dute, errealitatearen irakurketa kritikoa eskainiz, bere kezka existentzialekin aurre eginez, emozioen itsasoan murgilduz edo leihoak beste mundu posible batzuetara irekiz.

MUSIKA

Tradizioz, euskal gizarteak ez ditu bere merituak baloratu musikari buruz hitz egiten badugu. Askotan, kanpotarrak izan dira euskal artisten balioa artearen esparru ezberdinetan nabarmendu dutenak. Bitxia bada ere, euskal herria hain abeslari izanik, ia ez du egin bere herri musikaren inguruko ikerketarik. "Herrikoia" hitza erabiltzen dugu, Humboldtten esanetan, "Euskal Herria baita kultura intelektual zein morala benetan herrikoia duen herri bakarra". Musika eta ahozko alorraren barruan Pastoralak dago. Pastoralen bere antzezleak ere "gizon plaza" dira, baina batez ere herriko kideak dira, antzezlanen parte hartzen dute eta bertsolariek ez bezala, pastoralistek antzerki edo eszenaratze handiagoa dute. Pastoraleko parte hartzaileek, bertsolariekin gertatzen den bezala, sentimenduak eta istorioak adierazi behar dituzte bertsoa, poesia, kantua eta dantza saihestu gabe. Pastoralak eta bertsolaritza herriarentzat eta herriarentzat pentsatuta dauden bezala, gaur egun publiko heterogeneoa partekatzen dute biek. Hala ere, Pastoralak Zuberoako lurralde historikora mugatzen da ia erabat. Pastoralak Zuberoan baino ez dira egiten eta horrek azaltzen du gaur egun bizi duen desabantaila, baina berdin jarraitzen du izaten ahoz eta kantua bidez adierazten zen nortasun-seinalea.

Sorkuntza musikala da euskal herriaren nortasunaren ezaugarri nagusia, eta nortasun horren aurpegi landuenetako bat da. Izan ere, euskal nortasunaren aldeko bultzadarik handiena musikak eman zuela esan genezake. Euskal Herrian ere, nazio-identitateen eraikuntzari hasiera eman zion europar korrante hura aprobetxatu

zen. Hori lortzeko elementuak bi ziren. Lehena, herri-hizkuntza, eta bigarrena, herriaren adierazpen musikala. Alemania, Italia, euren identitateak aitortuak izan zitezen saiatzan ari ziren nazioen borrokaren hasiera izan zen. Hizkuntza eta Musika, euskaldunok beste nazio batzuek baino askoz lehenago genituen bi altxor. Izan ere, XVII. mendearen erdialdetik aurrera, Euskal Herriko katedralak eta basilikak ez ezik, Espainiako Estatuko zati handi bateko katedralak eta basilikak ere euskal organista eta kapera-maisuz hornitu ziren. Ondoren, Abesbatzen Iraultza iritsiko zen, eta, horrekin batera, abesbatzen eta orfeoi ezberdinen ugaritzea, sortzen diren hiriaren ikur bezala. Euskal Opera ere sortuko zen, hori bai, gai kostunbristetan eta historikoetan oinarrituta. Bidezkoa da jaiotza liriko honetan Bilboko Koral Elkartearen garrantzia azpimarratzea, Valle maisua zuzendari duela euskarazko lan asko ezagutzera eman baititu. Musikagileek, beren aldetik, ezaugarri musikalkoak atera behar zituzten eta beren lanetan islatu, eta idazle-poetekin lan egin behar zuten testuak euskaraz jar zitzaten. Imajina daitekeenez, obra horien argumentuek lotura handia dute kide izatearen sentimenduarekin, erlijioarekin eta askatasunarekiko maitasunarekin. Euskal opera sortu berri horretan euskaldunaren prototipoa irudikatzen da artzainekin, pilotariek, jakintsu zaharrek eta gazte ausart eta alaiekin, hau da, ohoratzen den Herriko pertsonaiak irudikatuz agertzen da. Aldi berean, Resurrección M^o de Azkue eta Aita Donostia ahaztutako milaka abesti herrikoi ikertzen eta biltzen aritu ziren. Bestalde, klasikoa deritzon musika dagoeneko funtzionatzen duten kontserbatorioetatik elikatzen da, gero orkestra hasiberriak elikatzeke eta, aldi berean, konpositore gazteek beste herrialde batzuetara emigratzen dute euren prestakuntza teknikoa osatzeko. Musikaren aurrerapenak ez du eragozten euskal musikak bere ezaugarriak gordetzea, adibidez, melodiaren nagusitasuna, normalean lasaia izaten dena, adagio edo andantean idatzia. Gaur egun, euskal nortasuna areagotu eta sendotu egin

da ahozko artearen, literaturaren, antzerkiaren eta musikaren alderdi guztietan. Hala ere, abangoardian gabeziaren bat igartzen da. Denon izenean hitz egiten duen zerbait musikala falta da, aho batez ordezkatzeko gaituena eta nortasun hori berresten duena. Aho batez abestutako ereserki baten falta sumatzen da, denak bere hitzak abestera erakarriko dituen, “Gernikako Arbola” kantatzen den bezala.

ARTEA ETA NORTASUNA

Artea, Euskal Herrian, artearen forma tradizionala hartuta, historikoki ulertu da izateko modu zehatz bat adierazteko esparru gisa, horretarako objektu artistiko batzuk produzituz, aztertzaile batzuen aburuz euskal nortasunaren ezaugarri nabarmenenak borobiltzen zituztenak, norbanakoari dagokionez baina, batez ere, taldeari dagokionez. Arte garaikidearen esparruan izaera islatzeko artetik igaro da, *egilea-lana/irudia-aura* identifikatzaile esanguratsuei esker, haiei kontrajartzen zaizkien esanahietan oinarritutako artea egitera.

Nortasuna eta Kultura ez dira gauza bera, baina bata bestearen eskutik lotuta doaz bide beretik. Nortasun komunitario oro eraikitzen da komunitateari oinarria eta kide izatearen sentimendua ematen dion kulturatik abiatuta. Edozein erakuntzatan gertatu ohi den bezala, nortasuna ez da berez edo bat batean agertzen, baizik eta komunitateko kideek eurek egiten dute, beren kulturaren eta nolabaiteko testuinguru sozio-kulturalean oinarrituta. Beraz, identitatea kulturaren ondorioa da, baina, era berean, ezinbesteko baldintza da hori existitzeko, gizabanakoek bizitzan zehar barneratzen dituzten kultur irudikapen, arau, balio, sinesmen eta sinboloetatik abiatuta. Identitateak kultura sortzen du, kulturak identitatea eraldatu eta berregiten duen bezainbeste. Komunitate bat identifikatzen duena kide bakoitzak haiekiko egiten duen pertzepzio subjektiboaren bidez hautatzen dituen ezaugarri kultural objektiboak dira; horregatik, ez da nahikoa talde jakin bateko kide izatea harekin identifikatzeko.

Identitate kolektiboa izango litzateke identitate indibidual guztien batura, elkarren artean oso

desberdinak direnak barne. Hauek egiazkoak eta zehatzak dira; hura, abstraktua eta ideologikoa. Artearen zeregina da irudi sinbolikoak sortzea, bai eta irudi horiek sozializatzeko prozesua ere; izan ere, gizabanakoek irudi horiek ezagutu eta barneratu egiten dituzte, eta gizarte-multzo baten identitate artistikoa osatu ere egin daiteke. Nortasun artistiko-kulturalaren dinamikak harreman politiko, ekonomiko eta sozialen sare trinkoa dakar berekin. Hori dela eta, identitatearen eraikuntza botere-harremanei lotuta dago, eta, beraz, izaera ideologikoa duen eraikuntza-prozesutzat har daiteke: bere nortasuna ezartzean, praktika artistiko-kultural batek interes sozialak eta botere-harremanak eraiki, erreproduzitu edo azpi-ikusten ditu. XX. mendean zehar artea *artearen politika* gisa hedatzen bada, identitatearekin gauza bera gertatzen da: ez zaio horrenbeste erreparatzen “izateari”, baizik eta izatera garamatzen prozesuari

Euskadin hainbat saiakera egin dira euskal nortasun artistikoa sortzeko. Modernitatearen hasieran, XIX. mendearen amaieran, aberzaletasuna eta sozialismoa beren interes ideologikoetara egokitutako ikonografia bat sortzen saiatu ziren. Artea baliagarri jotzen zuten propaganda egiteko. Zorionez, margolari eta eskultore garaikideek ez zuten mendetasun hori onartu, eta, horri esker, inoiz ezagutu ez zen loraldi sortzailea bizi ahal izan zen. Jarrera politiko horietakoren batekin ideologikoki konprometuta zeuden artistek ere (Adolfo Guiardek euskal nazionalismoarekin, adibidez) ez zituzten beren lanak kontakizun alderdikoietara hurbildu. Artearen zeregina ez zen taldeko interes materialekiko atxikimenduak piztea, errealitatea irudi sinbolikoen bidez interpretatzea baizik.

Joan den mendeko 60ko hamarkadan, Jorge Oteizak, *Quosque Tandem*, bere liburuan, euskal arimaren interpretazio estetiko bat planteatu zuen, hau da, euskaldunen artean espirituala denaren interpretazio estetiko bat, historiaurrea arte atzera eginez eta garai eta lurralde guztietako euskaldun guztiek duten espiritutasun komun bat dagoela gauza ziurtat emanez. Oteizaren jarrera pertsonalak, artista gisa, 80ko hamarkadatik aurrera gazte belaunaldi bat markatu zuen, komunikabideek “euskal eskultura berri” izenarekin bateratu zutena. Azkenik,

hamarkada askotan euskal musikaz, euskal pinturaz, euskal eskulturaz hitz egin ondoren, Euskal Herriko arteaz hitz egiten hasi zen.

Euskal gizarte bezalako gizarte moderno batean, artearen eta haren sinboloen sozializazioa izaera kognitibo arrazionalakoa da emozionala baino gehiago, eta, beraz, interpretazioak, balioak, sinesmenak, portaerak transmititzeko mekanismoak ez dira iraganeko berberak. Gaur egun, ez da tradizioa – emozioa –, baizik eta elkarrekintza komunikatiboa – komunikazio-prozesuetan parte hartzea –, Euskal Herrian bizi diren gizabanakoei (bertan jaiotakoak izan ala ez) aukera ematen diena identitate-adostasunen bat sortzeko gaitasuna duen “ni” kolektibo batean integratu daitezten.